

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA

[51]

**Euskal literaturaren
ikusezintasuna**





KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



Gipuzkoa
BERRIA

Idazkuntza Kontseilua

Kideak: Josu Jimenez Maia, Elena Martinez,
Juan Mari Apaolaza, Ainara Maia eta Nicolás
Zimarro.

Zuzendaria: Iratxe Etxebeste

Diseinua, maketazioa eta inprimaketa:
Antza Komunikazio Grafikoa



Zemoria kalea, 25 behea

20013 Donostia

Tel: 943 27 69 99

Faxa: 943 27 72 88

Posta elektronikoa: eie@idazleak.org

ISSN: 1130-2445

Lege Gordailua: SS-359/90

*Euskal Idazleen Elkaratek ez ditu derrigorrean beregain
hartzten Hegats aldirikako kolaboratzaileen iritziak.*

Aitzin solasa Ander Iturriotz	7
Ikusgarritasuna: hiru istorio Inma Errea	19
Euskarazko olerkariak, ikusezinak Nafarroa Garaian Josu Jimenez Maia.....	45
Euskal literatura ikusezina Iparraldean Ixabel Etxeberria	51
Idazlea galdu da ahaire baten lanbropean Gotzon Barandiaran Arteaga.....	59
Elkarrizketa: Anjel Lertxundi Iratxe Etxebeste	99

Ikusi, ez ikusi, desikusi

EUSKAL literaturaren ikusgarritasunaz hausnar egin nahi denean hiru kontzeptu jarri behar dira laborategian, hurrenez hurren: euskal, literatura eta ikusgarritasuna.

IKUSGARRITASUNAREN legeak aztertu behar dira, alegia, zerk egiten duen zerbait ikusgarri edo ikustezin eta zerk ez. Zer egiten gaituen itsu.

LITERATURAREN ikusgarritasuna aztertu behar da, gizarte gertakarien eta, bereziki, kultura industrialaren eta hipertestuaren inguruabarrean: zerk egiten dituen ikusgarriago produktu batzuk. Esaterako, telebista edo aldizkari ilustratuak.

LITERATURAREN barruan, azkenik, euskal literatura hartu behar da hizpide, euskaltasunak dauzkan ikusgarritasun gehigarriak, edo gutxigarriak, alegia.

IKUSI eta ez ikusi. Literatura ikusi edo ez ikusi. Beste diziplina batzuk gehiago ikusi edo gutxiago ikusi. Euskal literatura ikusi edo ez ikusi. Beste literatura batzuk gehiago edo gutxiago ikusi.

~~*

GIZA begia ez da, halabeharrez, objektiboa. Ez, beti. Gauza batzuk ikusten ditu eta beste batzuk ez. Beste objektu batzuk desikusi egiten ditu. Erlatibotasuna erabiliz, gauza batzuk gehiago ikusten, nabarmentzen, ezagutzen ditu beste gauza batzuk baino.

EZ gara makinak. Ez daramagu lente bat edo sentsore elektromagnetiko bat begian. Ez gara argazki kamerak.

GIZA abereak gara. Giza begiak daramatzagu aurpegian. Bihotza jartzen dugu, begia irekitzen dugun bakoitzean.

BATZUETAN bihotza hertsatzen du norberak begiaren barruan. Mugak jartzen dizkio begiari objektibitatearen izenean. Irakatsi egiten dio ikusten. Beste batzuetan, ordea, beste giza aberea agertzen da begian, grinaz betea, interesez asean. Ehiztariak bezala, geziak jaurtikitzen ditugu begiaren uztaiarekin.

GIZA abereak gara, giza abere sinbolikoak gara. E. Casirer-ek gogoratu zuen hori, makina bihurtu nahi gintuen arrazionalismo zorrotzari aurre eginik. Sinboluak daramatzagu begian.

HIZKUNTZA daramagu begian. Prelazioak. Kategoriak. Balioak.

DISTRATSU ala hits. Koloretsu ala laru. Eder ala itsusi. On ala txar. Mundua bereizten eta banatzen dugu neurri jakinak erabiliz horretan.

LITERATURARI buruz ere aplikatzen ditugu alde zurretik burutuak, eginak, gorpuztuak dazkagun kategoriak.

DEMAGUN euskal idazleak gaiztoak direla, orohar — euskal literatura gaiztoen literatura dela—, ez dutelako agertu biktima batzuekiko begirune nahikoa. Onak izateko —literatura ona egiteko—, barka diezaguten, bederen, ezinbestekoa da kondanaren irizpidea. Literatura eta morala. Literatura eta moral aldebakar bat. Indarraren arazoia.

BAINA, zergatik irakurtzen dira berdin antzera, bi-biak gutxi, biktima horiekiko begirunea erakutsi duten euskal autoreak eta erakutsi ez dutenak?

EUSKAL literatura lokalista da, probintzianoa, ez da inoiz izango literatura unibertsala. Unibertsalagoa al da Espainiako literatura? Nork jarriko ditu irizpideak?

KANON kultural etnoeuskalduna salatu zuen, Madrilén, Patxi Lópezen Gogernuaren ordezkariak. Kultura itxia. Minuskulazko kultura. Etno-kultura hori euskal kulturari lar lotua bide dagoelako, hain zuzen.

Zeri lotua dago euskal kultura? Zeri lotua dago kultura espainola? Dena ez da egongo, noski, kosmopolisean eskegita. Zeri lotua dago kultura alemana? Zergatik izan daitezke bi horiek, kalitatez, Maiuskulazko kulturak, adierazten badituzte, hurrenez hurren, kultura espainola eta alemana?

ADOSTASUN erraza lortuko dugu, batzuetan, begian. Adibidez, “hori aulki bat da” esaten dugunean. Baina, Afrikako edo Ozeaniako aulkiak ez dira izango hain *aulki*, agian.

ADOSTASUNA zaila izango da, ordea, beste testuinguru batzuetan, adibidez, “hori kultura da” edo “hori literatura da” esaten dugunean. Oraindik ere, letratuen ariketa-tzat hartzen da bertsojaritza, batzuetan. Kiroltzat, bestela.

GIZARTE oso bat daramagu begian.

EUSKARAZKO *haiku* poesi baten aurrean, Josu Jimenezek idatzitako baten aurrean, adibidez, izugarritzko zailtasunak aitortuko ditu nafar elebakar batek. Zipitziak ulertu gabe, ordea, liluraz betea begiratuko dio japonieraz idatzitako *haiku* bati.

ESTATUS edo kokaleku batetik irekitzen dugu begia.

GOITIK begiratuko du goian dagoenak. Behetik begira-
tuko du behean dagoenak.

~~*

OBJEKU batek ezaugarri jakin batzuk izan behar ditu erakarriko badu gure begia. Deitu egin behar du. Distiratu egin behar du. Boterea erakutsi, batzuetan.

ZEIN distira du euskaltasunak? Zein distira du, euskaltasunaren barruan, euskal literaturak? Izan al dezake euskal literaturak euskaltasunak ez daukan distira?

OBJEKUAREN kalitateak ez du beti erakartzen, ez du beti distira sortzen. Kalitatezko literatura sortzea ez da nahikoa literatura horren arrakasta segurtatzeko, adibidez.

ERAGILE subjektibo asko daude objektu batek begia zergatik deitzen duen esplikatzeko dutenak.

BAT ohitura egon daiteke, aldeztatik, objektu batek dituen ezaugarrietara. Batek erraz irakurriko ditu ezaugarri jakin batzuk. Batek aldeztatik izango du begian, objektu ezaugarri horren eskema bat. Ideologia.

BESTE bat, ordea, ohitu gabe abia daiteke objektu bat ikustera eta nekez irakurriko ditu objektu horren ezaugarriak. Ez baitarama, aldeztatik, eskemarik, maparik, irudi eredugarriarik begian. Ideologia.

OBJEKU bat ikusgarri edo ez ikusgarri egiten duten faktore subjektiboen artean batzuk sozialak dira, kulturak, politikoak.

KULTURA batekin, literatura batekin ezikusiarrena egitea politiko da, oinarrian.

DURKHEIMEN ostetik, objektu bat bezala hartu behar da gertakari kultural edo literario bat.

ZU zeu politikoki egon zaitezke prestatua, aldez aurretik, gauza batzuk ez ikusteko. Aurre-iritzi batzuk izango dituzu aurre-begian.

ESKLABU trafikatzaileak ez zuen ikusten esklaburik afrikar giza abereen larruan.

PAPUAKO herritarrak ez zuen *urrerik* ikusten antropologo victoriarraren urrean.

EUSKARA ezgai ikusiko du norbaitek, *a priori*, fisika nuklearra irakasteko. Eta ez diozu esango ezjakina dela, aldez aurretik dakizulako jakintza handikoa dela, distira handia daramala distintzio zeinuetan.

EUSKARAZ egiten den kultura eta, ondorioz, literatura, demokratizatu behar dela esan digu, duela gutxi, PSOEk, euskara tributik askatu nahi bide zuen txosten iraingarri batean. Antropologo victoriarraren jarrera errepikatzen da.

LITERATURA irakurle jakin batek, *a priori*, ez du aintzat hartuko euskal literatura.

TESTU liburuetan, euskal kulturak irudi folkloriko, irudi ez modernoak daukala nabarmendu du B. Bilbaok bere tesian: jaiak, ohiturak, sukaldaritza, dantza, herri kirola... Ez gara artean irten zirkulu topikoetatik.

EUSKAL literaturaren irudiaren adierazgarria ere *Gara* eta *Kresala* dira askorentzat. Kostunbrismoa. Etno-literatura.

ZERK egiten du ikustezin literatura? Esan al daiteke, inor asaldatu gabe, goi mailako literatura? Zerk egiten du ikusgarriago *best seller* bat?

ZERK egiten du ikusgarriago telebista, edo sarea?

GALDU al da diziplinaren, ahaleginaren, heziketaren aldeko borroka? Galdu al da giza abere estetikoari buruzko galdera?

GALDU al da denbora geldoaren antropologia?

ZER behar du irakurle batek zaletzeko poesia geldora? Ematen al zaio aukera hori eskolan?

NOLA des-ikasi dezake batek zirkulazio azkarraren ohitura? Bizi al daiteke bat interneten morrontza askatuta?

ZERGATIK ikusten dugu saiakeran unibertsitaterako testu bat, ezinbestean?

ZERGATIK ez da idazten antzerkia? Zergatik ez da irakurtzen idazten den antzerkiapurra?

LITERATURAREN artean ingelesa da ikusgarriena. Kalitateaz ez zaio ukatuko, noski, literatura horri. Baina ez dugu ahantzi behar atzetik daramala inperioa.

EUSKAL Herrian, ordea, literatura ingelesa ez da oso ezaguna. Ezagunagoak dira literatura frantsesa eta espainola. Inperio horiek indartsuagoak dira gure gainean.

LITERATURA frantsesa ikusten duenak ez du ikusten literatura espainola. Alderantziz ere baliogarria da baieztapena.

LITERATURA espainola besterik ikusten ez duenak badaki errekaz bestaldean daukala literatura frantsesa. Baina ez du ikusten. Ez du ikusi nahi. Begia dauka literatura espainolarekin beteta. Alderantziz ere baliogarria da baieztapena.

ZENBATEK ikusten du Euskal Herrian euskal literatura?
ESPAINOLEZ eta frantsesez bizi denak ez du ikusten euskal literatura. Ez zaio interesatzen. Desikusi egiten du, arbuaiatu, agian. Euskal literatura itzultzen denean ere oso gutxi irakurtzen da.

ZER egin beharko litzateke espainolez eta frantsesez bizi denak irakur dezan itzulitako euskal literatura?

ZENBAT aldiz hitz egiten da hedabide “autonomiko”-etan, espainolez eta frantsesez, euskal literaturaz? Besteei baino interes handiagoa suposatzen baitzaie egunkari, irratia eta telebista “autonomiko” horiei. Berdin dit nola deitu: ETB2, Deia, Gara...

BAINA euskalduna denak ere, errazago ikusten ditu literatura ingeles, frantses eta espainolak. Horretaz kexu da Lertxundi ale honetan. Zenbat inperio daukagu bizkarren gainean?

EUSKAL literaturaren merkatua oso itxia da. Idazleak irakurtzen du euskal literatura. Arituak irakurri behar du, behar duenez, euskal literatura. Profesionalak dira.

BESTE interes batekin, irakurzaleak irakurtzen du euskal literatura, modu naturalean, alegia, bere hizkuntzara zaletu denak. Hori da gure indarra. Hor egin behar dira ahalegin handienak. Gainerakoa propaganda da, neurri batean. Ongi dago, baina beti izango ditu inperioen mugak.

EUSKAL literaturaren ikustezintasunak aldaera ezberdinak dauzka geografia politikoa. Nafarroan desikusi egiten da erakundeetatik eta literatur-zirkuituetatik. Jimenez eta Errea bat datoz horretan. Etxeberriak, ordea, argi printzel batzuk antzeman ditu Ipar Euskal Herrian.

ZENBAT irakurtzen da Euskal Herrian euskal herritarrek espainolez eta frantsesez egiten duten literatura? Madriletik eta Parisetik etorri behar al zaigu beti kanona?

WITTGENSTEINEK erakutsi zigun testuinguruan ikusten duguna. Irudiak inguruabarrean distiratzen direla, alegia, errepresentazio-sare batean, bizitza-modu batean.

IKUSTEN ikasten dugu. Ez ikusten ikasten dugu ikusten ikasten dugunean. Itsuak gara gauza batzuen aurrean.

UNTXI bat edo ahate bat erakusten duen diagraman, batzuek *untxia* ikusiko dute eta ez dute ikusiko *ahatea*. Beste batzuek, ordea, *ahatea* ikusiko dute, eta ez *untxia*.

JENDE bat itsua da literaturaren aurrean.

LITERATURAREN aurrean itsua ez den jende bat, itsua da euskal literaturaren aurrean.

ZERBAIT ikustea, zerbait errekonozitzea, zerbait horri legitimitatea errekonozitzea dela erakutsi zuen Bourdieuk, bestalde.

LEGITIMOTASUNA, ikusgarritasuna, kanpotik datorkio objektuari.

LEGITIMOTASUNA, ikusgarritasuna, kanpotik ere, esan dezagun, badatorkio euskal literaturari.

EUSKAL literaturaren sinesgarritasuna ez dator, ezinbestez, barrutik. Ez kalitatetik, ez freskotasunetik, ezta es-tilo ariketaren ausardiatik ere. Beste faktore exogeno eta arrotz batzuek ukatzen diote sinesgarritasuna.

ZERBAIT ikusgarria da, artefaktu sinbolikoen merka-tuan kapital sinboliko asko akumulatu duen heinean.

EUSKAL literaturak, hizkuntza gutxitu batean adieraz-ten denez, hizkuntza horrek daukan kapital sinbolikoa bai-no ezin du erabili. Hutsaren hurrena, alegia.

BIGARREN mailako hizkuntza batean ari denez, euskal idazlea derrigorrez izango da bigarren mailakoa. Izan ala ez izan. Topikoa hautsi ala ez hautsi.

EUSKAL literatura ez da literatura, esaten da, adibidez, euskal literatura euskara da. Eusko Jaurlaritzaren garai ba-teko aurrekontu batzuetan ere hala onartzen da.

KAPITAL sinboliko handia pilatu duenak bestea ezagutu gabe epaitzeko ausardia dauka.

ZERBAITEK kapital sinbolikoa pilatuko badu, ezinbeste-koak ditu legitimazio-erakundeak: eskola, hedabideak, erri-tual publikoak...

NON dago euskal literatura eskola, hedabide eta erri-tual publikoetan?

NORK erabakitzen ditu curriculumak euskal eskolan? Zein leku du literaturak curriculum horietan? Zein leku du euskal literaturak curriculum horietan?

ZEIN ekarpen egiten diote euskal literaturari “Idazleak ikastetxeetan”, “Idazleakaz” edo “Ikasleak idazle” bezalako programek?

ZENBAT zailtasun izan ditu “Sautrela” literatur-saioak euskarazko euskal telebistan? Zenbat ahalegin eskatzen du “Hitzen Ubera” izeneko web guneak?

NOR laguntzen ditu Literatura-eskolak, Literaturia, Irakurle-txokoak, Ahots-enea...?

ADOS jarriko al gara, behingoz, Literatura Sarien fun-tzioaz?

SARIAK saritzailearentzat ere sari direla ahortzi gabe, behintzat.

PROPAGANDA ere beharrezkoa da begiak erakarri, distira sorrarazi nahi bada. Baina, zein motatako propa-ganda?

EUSKAL liburu batzuekin marketing estrategia eraso-korrek erabili dira. Best seller-ak saltzen dituzten ingelese-nak. Kanpaina zaratsuak. Salmenta psikologia. Koloreak. Iruzigileen aholkuak. Saltegi handiak... Nolako izan da emaitza? Zer saldu da? Liburua? Egilea? Zerbait gehiago saldu behar al da, horrekin batera?

AUTORE bat ongi saltzen denean, zalantzarik gabe, euskal literatura ere jartzen da begien aurrean. Hori esan gabe doa.

BAINA, agian, euskal literatura salduz gehiago salduko lirateke autoreak eta obrak banaka.

MARKA. Pentsa dezagun euskal literatura marka bat bezala.

MERKATU komertzialean ezinbestekoa da marka bat begitik sartzea salduko baduzu produktua. Produktuen arteko gerra baino indartsuagoa da marken arteko gerra.

LITERATURAREN historian ere marka baten barruan indartu izan dira, hurrenez hurren, garaiz garai, literatura *hispanoamerikanoa* —horrela esaten zitzaion—, edo alemana, edo EEBBarra, edo, orain, suediarra.

LITERATUR-MARKA batek ikusgarriago egin litzake autoreak eta obrak banaka.

NAZIOAK beraiek gero eta gehiago ari dira saltzen beren marka. Batzuek arrakastaz. Beste batzuek ez hain arrakasta handiz. *Nation Branding* esaten zaio. Horrela aurkituko duzue baten mezua: *Positioning Greece in the International marketplace*.

NAZIO-MARKA eraikitzeke kultura-marka edo literatura-marka erabil daitezkeen bezala, kultura-marka edo literatura marka eraikitzeke nazio-marka ere erabil daiteke.

ZER saltzen du Suediak azken literatura-labekada arrakastatsuen bidez? Zer irabazten du Suediako literaturak Suedia eginez ikusgarri?

EUSKAL HERRIAK nazio-markarik ez du berehala izango. Baina kultur-marka badu. Beti izan du. Nazio-marka ukatzen dizutenek ere ezin dizute ukatu kultur-marka.

NAZIO-MARKARIK erabili ezin duen euskal literaturak kultur-marka erabil dezake. Euskal literatura ikusgarriagoa bilaka daiteke euskal kulturaren markaren barruan. Literatura saltzeko, literaturarekin batera, kultura-marka bat saldu beharko litzateke, agian.

KULTUR-MARKAREN eta literatur-markaren arteko sinergia positiboen adibide bat aztertu du Barandiaranek, euskal musikaren eta euskal poesia ikusezinen arteko lankidetzaren historia egin duenean.

LITERATUR testuekin batera, musika, bideo-sorkuntza, artegintza... *Pack* bat, beti ere, ikusgarriagoa izango da. Beste garai batean hala egiten zen, Lertxundik gogoratu digunez.

LITERATUR-MARKA, kultur-marka, nazio-marka. Noraino dago prest euskal literaturgilea lan egiteko marka baten alde?

PREST al dago euskal literaturgilea beregain hartzeko marka-eragilearen lana?

**Ander Iturriotz Lauzirika
EIEko Lehendakaria**

Ikusgarritasuna: hiru istorio

Inma Errea

Lehena

Ostiral arratsaldean. Asteko erosketak egiten merkatuko itzulia egin berria. Merkatuan, eta joan-etorrian, zenbait lagun topatu ditut. Adin, sexu, ogibide eta sinesmen zein ideia askotarikoak. Batzuekin luze mintzatu naiz, beste batzuekin, labur. Baten batekin diosal arin bat gurutzatu baino ez. Energia-gorakada igarri dut etxerako bidean. Gogo betarik daukat, seguraski jende horrekin guztiarekin topo egin, eta elkarrekin izandako hartu-emanen ondorioz. Gauza asko kontatu diogu elkarri, poztu gara elkarren berri onekin, gogoeta egin dugu zenbait konturi buruz eta, zeharka bada ere, gure kezkak eta minak ere agertu dira gure solasetan. Baina, batez ere, elkarri begiratu diogu, eta begirunea erakutsi, elkarri aitortu diogu berdinak garela, edo antzekoak, eta aintza moduko bat ezagutu diogu elkarri. *Elkar ikusi dugu.*

Bigarrena

Bere baitako pentsamenduetan bilduta doa kalean barna. Kezkatuta dago lanarekin. Eta urduri, handik ordu erdira, elkarteko bileran, Gaizka egongo delako. Lanaren inguruko kezkak ez dira lanekoak berez, baizik eta oraingoz balizkoa den eta laster benetako bihur daitekeen lanik ezak eraginda. Izan ere, badira zantzuak fabrikatik batzuk bota behar dituztela. Eta Anek uste du bera izan daitekeela horietako bat. Ane fabrikako bulegoan ari diren hiru administrarietako bat da. Duela urte pare bat arte nahikoa

lan zuten zurezko zoruetako fabrikan, baina krisiak gogor jo du negozioa, eta jabea hasi da abisatzen: negozio txikia da, eta eusteko zaila. Hori esan zuen egun batean, Aneri *begira* gelditu zen. Anek pentsatu zuen bulegarietan inor kaleratuz gero bera izango zela, bulegoko gazteena, eta berriena.

Aneren pentsamenduetan beste erdiak Gaizkak okupatzen ditu, Gaizkak, herriko gaztetxeko mutil guapoena eta atseginena. Hori guztia, Aneren ustez, jakina. Anek kilimak sentitzen ditu sabelean Gaizka ikusi ahala, baina Gaizkak ez *dio begiratu* ere egiten. Gaur, bileran, Anek elkarteko diru-kontuei buruzko txosten moduko bat aurkeztu behar du, eta urduri dago, diru-kontuak inoiz ez baitoaz halakoetan arazorik gabe. Baina, batez ere, Gaizkaren aurrean nola ari-tuko den dauka kezka, Gaizkak nola *ikusiko* duen.

Bat-batean, errepidea gurutzatzen ari dela, balaztada batek ateratu du Ane bere baitatik. Autoaren gidariak, gizon batek, oihera egin dio: “*Ez duzu ikusten gorri dagoela? Gazte hauek... Non duzu burua?*” Anek autoaren gurpilen azpian *irudikatu* du une batez bere burua. *Irudiak* ikaratu du. Hutsalagoak *iruditu* zaizkio lanari eta Gaizkari buruzko kezkek.

Hirugarrena

Herri hartako elizan, *betidanik*, gizonak eskuinaldean jartzen ziren, eta emakumeak, ezker aldean. Behin emakume bat gizonen aldean jarri zen arte. Emakumea kanpotarra zen, eta ez zituen ezagutzen herriko ohiturak. Herriko seme baten emaztea zen, senarrarekin iritsi berria Amerikatik. Emazteki dotorea zen, ederra, eta herriko *gizonen begiradak* bereganatuak zituen ja aurreko bi egunetan, he-

rrira iritsi eta senarrarekin herrian barna eginak zituen ibilaldi laburretan. Ederra zen eta, batez ere, herriko emakumez bestelako era batez jantzita zihoan. Prakak erabiltzen zituen, praka zango-estuak, orduko modaren arabera. Adeitsua zela ere *erakutsia* zuen herrian, herritarrekin gurutzatutak zituen diosaletan.

Igande hartan, mezara, bakarrik joan zen, senarra, marrantaturik, etxean gelditu zelako. Amaginarrebarekin zen joatekoa, baina meza orduan bisita bat iritsi zen etxera, senarraren aspaldiko lagun bat, eta etxekoandreak haiekin gelditzea erabaki zuen, eta emazteki gazte kanpotar dotorea bidali zuen elizara. Esanekoa, harantz abiatu zen andre kanpotar gazte dotorea. Eta atrioan *ikusi* zituen herriko gizonak elizara sartu gabe zeudela, eta bitxia iruditu zitzaion. Eta *ikusi* zituen emakumeak zuzenean sartzen, gizonak utzitako pasabide estuan zehar. Herriko emakumeen antzera egin zuen, eta zuzenean sartu zen. Gizonen *begiraden pisua* sentitu zuen. Elizan sartutakoan, *ikusi zituen* ezker aldeko bankuak ia beterik, eta pentsatu gabe eskuin aldera jo zuen, bigarren bankura, lehengoan herriko mutil koxkor batzuk baitziren. Azken kanpaiekin batera, sei danda segitu, gizonak sartu ziren. Atzera emandako *behakoan ikusi* zituen gizon guztiak eskuin aldeko bankuetan jartzen, salbu gazte batzuk, elizako korura igoak baitziren haiek. Inor ez zen jarri haren alboan, baina guztien *begiak* zeuden harengan iltzaturik. Lotsatuta sentitu zen. *Ikusgarriegi*.

Emakume dotore askoa Amerikara itzuli zen. Eta herriko elizan, geroxeago, beste emakume batzuk ausartu ziren gizona zkoen aldean jartzen. Haatik, inoiz ez *da ikusi gizonik* emakumeen partean.

Ikusgarritasuna: zenbait ohar

Bat. Pertsonok behar dugu *ikusgai* sentitu, eta *besteen begiradek laguntzen* digute gure burua *munduan kokatzen*. Aldi berean, giza joera da *besteei so egitea*. Eta *soak* onuragarriagoak dira *elkarrenganakoak* badira, *berdintasunezkoak*, orekatuak: pertsonen arteko harremanak aberasten dituzte, elkarbizitza hobetzen.

Bi. Gure *baita*, hori da pertsonon etxea. Mundu oso bat. *Geure-geurea*, eta, aldi berean, *besteen aztarnak* eta *islak gorderik* dituena: *besteekiko loturak* eta *haiengandik bereizten gaituzten arrakalak*, *besteek gugan piztutako sentimendu* eta *pentsamenduak* eta *gutaz haien begietan ikusten* edo *igartzen ditugun islak* eta *oihartzunak*, *besteekiko gure beldurrak* eta *herrak* eta *haiengan jarritako itxaropenak* nahiz *haiei uztartzen gaituzten txerak*. Hor ere, *oreka* da *beharrezkoa*, *joerak paretso* joatea.

Hiru. Jendarteek arauak sortzen dituzte, *banakoak* heretsatzen dituztenak. Eta hori *onerako* edo *txarrerako* izan daiteke. *Bizikidetzak arauak* behar ditu, eta *arau* horiek *bizimoduak* eta *banakoak* eraldatzen diren ahala aldatu beharko lirатеke. Baina ez da maiz gertatzen, eta *ohikoa* da *banakoek* eta *jendarteek* jada *balio* ez duten *arauak aldatzeko* borrokatu behar izatea. Alardeetan, adibidez.

Ikusgarritasuna: Alardeen (eta beste ospakizunen) erakuste kolektiboa

Ospakizun tradizionalak zerbait dute ihartutik. Beste garai bateko ohiturak dakarzkigute gogora, *halakoak erakutsiz festa giroan*. Berez, *egokiak* dira *jendarteek beren sus-traiak* eta *historia gogoan hartzeko*. Baina onurekin batera, *zenbait buruhauste* sortzen dituzte. Haiek interpretatzeko

orduan iritzi kontrajarriak izaten dira: batzuek bere horretan *iraunarazi* nahi dituzte, denbora *izoztu* nahi izango balute bezala. Beste batzuek garaien arabera *egokitu* nahi dituzte halako ospakizunak, *eraldatu*.

Alardeak, berez, *erakusteak* dira, hori da haien esanahia. Alardeetan emakumeek beti hartu dute parte. *Ikusgarriri* eta arrandia *erakutsita*. Kantinerak dira alardeetan betidanik parte hartu duten emakumeak.

Ikusgarritasunaren afera, genero-berdintasunaren¹ aldeko borrokan funtsezko kontzeptu hori, aztertzeko, interesgarria jotzen dut begirada bat egitea alardeei.

Kantinerak, alardeetan parte hartzen duten emakumeak, gutxi dira, alardeetako gizon-saldoen aldean. Haien ikusgarritasuna, *ikusbizun* bihurtzeko gaitasuna, handiagoa da, ordea, eta neska gazte askok nahi dute, oraindik ere, kantinera izan, nahiz eta, teoriarik behinik behin, haien ikusgarritasuna *bat ez etorri* jendarte moderno baten *ezaugarri berdinzaleago* eta demokratikoagoekin.

Alardeetako *kantinerak*, Zuberoako maskaradetako *Kantiniersa* pertsonaia bezala, Napoleonen armadako soldaduei jan-edanak zerbitzatzen zizkieten emakume gazteen antzera doaz jantzirik. Halako *zerbitzariak* omen ziren, baita ere, XIX. mendean Txileko armadan, non soldaduak zaintzen zituzten erizain moduko batzuk ziren, etxeko, osasuneko eta *laguntzako zereginak* zituztenak². Beraz,

1 Oro har, ez bakarrik generoaren arloan, baizik eta berdintasuna helburu duten gauza eta egoera guztietan.

2 Ohitura eta moraltasun egokiak exijitzen omen zizkieten, haien irudia –ospea– izan ez zedin garai berean Latinoamerikako armadei atxikita joaten ziren beste klase bateko emakumeek, prostitutek, zeukaten bera.

XIX. mendeko kantineren uniformeetan dute jatorria gure alarde eta maskaradeetako kantineren eta kantiniersen jantziek, baina kantinera txiletarrek armak ere eramaten zituzten batzuetan. Eta armaturik ere agertzen dira *irudietan* Mexikoko iraultzako *adelitak* edo *soldaderak* izenekoak.

Kantiniersa pertsonaia, aldiz, beste pertsonaia zaharrago baten ordeztatu omen zuten maskaradetan, XIX. mendearen amaieran, aurrekoak, *Maka Beltza* izenekoak (*maquerelle beltza*, frantsesez), baliatzen zituen adierazbideak ez zituztelako egoki jo zenbait bisitari ospetsuren *aurrean* aurkezteko³. Kantiniersaren rola gizonezkoek egiten zuten lehen, eta pentsatzekoa da *Maka Beltza*ren papera ere *gizonek* egingo zutela, beste garaietan antzerkian *ohikoa* zen legez.

Esan dut: neska gazte batzuek nahi dute kantinera aritu alardeetan. *Ikusgarri handi batean, ikusgai*. Eta horretarako gazte izan behar dute, eta dotore, eta eder.

Horrek aukerak murrizten dizkie emakume gehienei alarde batean parte hartzeko orduan. Gizonezkoek ez bezala. Horregatik, beste emakume batzuek alardeetan parte hartu nahi bai, baina beste modu batean egin nahi dute, ez *hain ikusgarri*. Gizonen antzera izateko *ikusgai*: gazte edo eder izan beharrik gabe. Berdintzaletasuna aldarrikatzen dute horrela, eta festa eta ospakizunetan era berdintzaletago horretan parte hartzea ikur jotzen dute, bizikidetzaren gainerako eremuetan xede duten berdintasunaren aldarri.

Azken urteotan alardeak denon ahotan ibili dira, modalitate tradizionalaren aldekoen eta bertsiu modernoago

3 *Maquerelle*, frantsesez, prostituzio-etxea duen emakumea da.

eta berdinzaleagoa nahi dutenen artean sortutako hika -mikak eta istiluak medio. Baina inon ez dut aditu gizonen batek kantinera izan nahi duenik... Badirudi emakumeok interes handiagoa dugula *gizonen ikusgaitasuna* berdintzen, gizona *gure ikusgarritasuna* bereganatzen baino.

Gizonek ez baitituzte besterik gabe bere egiten tradizioak femininotzat jo dituen zeregin eta jokamoldeak. Agerikoa da hori gauza askotan. Hiztegietan ere bai. Gonbit egiten dizuet horietako batera sartzera⁴, bisita txiki bat egitera⁵.

Gaztelaniazko *fortaleza* sarreran (= *indar, sendotasun, azkartasun*) honela dio adibideak: “Es una mujer de gran fortaleza: Indar handiko emakumea da.”

Euskarazko *indar* sarreran, adibidea hau da: “Ama indar handiko emakumea da: Mi madre es una mujer de gran fortaleza”. *Sensibilidad* sarreran, adibideak honela dio: “Es una persona de gran sensibilidad: oso pertsona sentikorra da”. Eta *sentikortasun* sarreran, hau ikusiko duzue: “Negarrez hasi da, oso sentikorra da eta: Como es tan sensible se ha puesto a llorar.”⁶ Ondorioak, zeinek bereak.

Ikusgarritasuna: aipuak, ausardiak eta aieruak
Monique Wittigek⁷ idatzi zuen emakumeak “*ikusgarriegi*” garela “*izaki sexual gisa, eta kasik ikusezinak pertsona sozial*

4 Kasu honetan Elhuyar da, baina, beste edozein izan zitekeen.

5 Adibideak itzulpen-lan bat egiten aurkitu nituen. Hona itzuli behar nuen esamoldeak zioena (artista bati buruz):“(…) *demonstró una gran humildad, bonhomía y recia sensibilidad* “. Baietz asmatu deskribatutako pertsona gizona den ala emakumea!

6 Etzanak nireak dira.

7 Egokia al da, edo beharrezkoa, esatea idazle frantsez amerikartu hau feminista zela, eta lesbiana? Zalantza hori ere parekotasunik ezaren seinale eta ondorio da.

bezala”. Esan zuen, baita ere, bi gizonetik bat emakume dela⁸. Wittig ausartu zen proposatzera emakumeek *geure burua sortu* behar dugula, geure bizitzan geure kondairak bihurtu, ezerezetik sortuak izango bagina bezala⁹. Esan nahiko zuen emakumeok *eredu berriak asmatu eta geure* egin behar ditugula, eredu maskulinoen arabera eraturako jendarteek proposatzen dizkiguten arauetatik aldentuta.

Baina, nola *asmatzen* du batek bere burua? Nola egin dezakegu ezerezetik sortuak izan bagina bezala aritzeko, atzean utziz, ahaztuz, gure historia, gure biografia edota guregan arrastoa utzi duten eraginak?

Virginia Woolfek¹⁰ aldarrikatu zuen emakumeok gela bat geurea eduki behar genuela, burujabe izan, aske sentitu, sortzeko. Eta sormen-lanetan jarduteko, *adimen androgino* baten komenentzia nabarmendu zuen, gizon edo andre izatearen eraginpetik libre beharko lukeen adimena. Baina nik *ikusten dut* emakumeok askotan –gehienetan eta, apika, gehiegitan?– *maskulinotasunaren etxean* hartzen dugula gela, gizonek berez berea duten ostatuan *apopilo*. Ospakizunetan nahiz egunerokoan, exekutibo, mediku, politikari, eskulangile zein idazle, gizonen mundutik heredatutako ispilan begiratzen diogu geure buruari, ez baitugu beste

8 Oso modu zorrotz eta adierazkorra da azaltzeko afera ez dela gizon edo emakume izatea baizik eta molde edo eredu batzuen ala besteen nagusitasuna.

9 “*Il nous faut dans un monde où nous n’existons que passées sous silence, au propre dans la réalité sociale au figuré dans les livres, il nous faut donc, que cela nous plaise ou non, nous constituer nous-mêmes, sortir comme de nulle part, être nos propres légendes dans notre vie même, nous faire nous-mêmes êtres de chair aussi abstraites que des caractères de livre ou des images peintes.*”

10 Virginia Woolfen *Gela bat norberarena* argitaratu berri da euskaraz (Conssoni, 2013. Itzul.: Maria Colera), eta *Dalloway andrea* ere aurten argitaratuko da (Itz.: Itziar Diez de Ulzurrun).

tresnarik –edo ez dugu kausitu– gu ere ikusgai izateko gizonen gizaldi eta gizaldietan izan diren era bertsuan.

Amets zoroegia al da etxea guztiena izatea, guztientzat guztiek egina, eta nork bere ispilua edukitzea?

Ikusgarritasuna: adierak eta ardurak

Munduko herri askok bezala¹¹, euskaldunok itzulpenen behar handia dugu. Frantsesa eta gaztelania euskara bezain gurea egin zitzaizkigun¹², eta euskara letren plazara jalgi zenetik etengabe ari gara itzultzen (formalki edo formaltasunik gabe). Etengabe ari gara hizkuntza batean datozkigun ideiak, kontzeptuak eta errealitateak beste batera pasatzen (orain hain gurea ez zen ingelesa ere batu zaio gure hizkuntzen zaldiko-maldikoari). Horrela, *ikusgarritasun* hitza *visibilidad*, *visibilité* eta *visibility* hitzen pareko egin dugu. Eta hala da, baina ez horrela soilik.

Ikusgarritasun hitzak, euskaraz, beste esanahi bat ere badauka: *vistosidad*, *magnificence*, *splendidness*. *Ikusgarri* hitzak ere, batek ikusia izateko gaitasuna aipatzeaz gain, bestelako oihartzunak ditu¹³: *ikusia izateko merezi duena*, *ikuskitza* (*antzerki-emanaldia*, *ikuspegia...*), *miraria* eta, are, *oparia* ere¹⁴!

11 Zenbat izango dira munduan hizkuntza bakar batekin molda daitezkeen lagunak, eta zenbat, bat baino gehiago behar dutenak? Hizkuntza bakar batekin moldatzen direnek uste izaten dute nagusi direla, baina susmoa dut ez dela erabat egia. Agian bere hizkuntzaren esparruan haiek dira nagusi, baina mundua oso handia da, eta toki askotan eta askotan hizkuntza bat baino gehiago jakin behar dira eguneroko bizitzan moldatzeko.

12 Edo bihurtu zizkiguten, nola begiratzen diogun.

13 Orotariko Euskal Hiztegiari behako bat ematea besterik ez da egin behar.

14 Hitzez hitz, OEhn arabera, “*Cadeau que les malades, notamment les femmes acouchées, reçoivent de leurs parents ou des amis que les visitent.*”

Hitzek atzerakarga daramate berekin. Hitzen adierek axola dute, eta usu haien arabera doaz ardurak: *ikusezintasun* kontzeptuari *ikusgarritasuna* kontrajartzea ere ez da tatxagabea.

Ikusgarri izan nahi dutenek —emakumeek edo hizkuntza gutxituetako hiztunek kasu— *jendaurrean agertu* behar dute beren burua, eta horretarako *ahalegin berezia* egin behar dute, *ikuskitun* batean aritzen direnen antzera: alardeetan, antzerkian, genero-berdintasuna aldarrikatzean, euskaraz aritzean nahiz idaztean edo nazio gisa antolatzeako orduan. Eta hori egiteko, lanak hartzen dituzte, eta txistualdiak, uhukadak eta laidoak nozitzeko arriskuan jartzen dira, eta gehienetan, horren guztiaren ordain, *ikusleen* arbuioa biltzen dute.

Ikusgaitasuna —edo *boterea*, *ahalmena*, *ahotsa*...— berezko (betidanik?) dutenak eroso bizi dira, jabetza hori natural-naturala da haientzat, eta ez dute nahi izaten gauzak aldatzea. Tradizioaren makuluari heltzen diote: *Beti* egin da horrela.

Alardeetan, emakumeak kantinera baino ez dira izan. *Beti* egin da horrela... Zergatik, aldatu, zertarako? Hizkuntzan diferente izendatu dira gizonak eta emakumeak. *Beti* izan da horrela... Zergatik aldatu, zertarako? Mutil-dantzak mutilenak izan dira beti, izenak berak dio. *Beti* izan da horrela... Zergatik, zertarako, aldatu?¹⁵ Espainian —edo Frantzian— denek dakite gaztelaniaz —edo frantsesez—, eta

15 Artikulu hau amaitzen ari nintzela irakurri dut albistea: lurretako sanmigeletan neskek eta mutilek dantzatu dituzte tradizioak gizonei erreserbatzen zizkieten dantzak, batzarran hartutako erabaki bati esker. Elizaren aurrean dantzari bat (mutil) irudikatzen duen eskulturari ere beste dantzari bat (neska) gehituko omen diote. Pozgarria da ikustea denak izan daitezkeela ikusgai istilurik gabe eta guztielikiko begirunez.

erosoa da hizkuntza bakarra izatea denontzat. *Beti* izan da horrela. Zergatik –zertarako– onartu, espainiar –edo frantses– (derrigorrez zein nahita) direnen artean *gutxi* batzuei beren hizkuntzak erabiltzea, haietan hitz egin, haietan idatzi eta argitaratzea? Espainia eta Frantzia (edo Britaina Handia edo...) estatu handiak dira, zeinek bere muga zehatz eta egitura handiekin. *Beti*¹⁶ izan da horrela, zergatik –zertarako– orain hori aldatu?

Bitartean, besteok –emakume izan edo hizkuntza gutxiagotuko hitzun zein idazle, nazio ukatuko herritar, sexu zalantzagarriko lagun, arrazetan ez-zuri edo, besterik gabe, sosetan baliabide eskaseko– *sorgin-gurpil* batean aritzen gara jira-biran. *Ikusezin* sentitu eta geure *ikusgarritasuna irabazi* nahi dugu. Eta hori dela-eta *ikusgai* direnen antzera jokatu nahi dugu, eta, horretarako haien ereduak geureganatzen ditugu, *horiek* hartzen ditugu *aterpe* eta *ispilu*. Eta horrela, nolabait, bestek ezarritako baldintzen pean gelditzen gara.

Ikusezin sentitzen direlako *ikusgarri* izan nahi dutenek lana hartzen dute beren ikusgarritasunaren *aldarria* beraien ikusezin iraunarazita eroso bizi direnei helarazteko, eta, lanaz gain, arriskua ere hartzen dute: beren aldarriaren hartzaileen *ezinikusia* piztearen arriskua.¹⁷

Hori, lana eta arriskua hartzea, ez da batere eroso. Askoz erosoagoa da ezer egin gabe gelditzea, gauzak *betiko eran* joaten uztea. Alardeetan parte hartu nahi duten emakume feministak askoz erosoago biziko lirateke hori gabe.

16 Ez dute esaten noiztik irauten du *beti* horrek.

17 Burura datozkit ikusgaitasuna lortze aldera ikuskizunaren bidea nahita hartu duten emakume-talde feministak: Femen edo Guerrilla Girls kasu.

Literaturan hizkuntza nagusien ozeanoan beren hizkuntza txikien txalupak nabarmendu nahi dituzten idazleak askoz lasaiago biziko lirateke lehorrean gelditurik edo hizkuntza nagusien gurutze-ontzioetara igota. Bai eta euskal kultura Nafarroan ikusarazi nahi dugonok ere, horri uko egin eta eman diguten estatus ikusgaitza onartuko bagenu.

Hala egiteko aholkatzen digute maiz giderrak *betidanik* eskuetan izan dituztenek. Halakoek beti esanen dute besteek gatazka piztea besterik ez dutela nahi, eta ez dutela lortuko eskatzen dutena, eta ez duela *merezi*. *Ikusgarri, ahaldun*, izan nahi dutenei jokoia lapurtu nahi diete hogeitamaika eskutik edukitzen segitu nahi dutenek. Horregatik ikusgarri izan nahi dutenek lan bikoitza dute –baita hirukoitza ere–: beren ikusgarritasuna aldarrikatzeaz gain, *erne egon* behar dute, lortzen dituzten apurrak ez galtzeko. Hala ibiltzea oso *negarria* da.

Nekagarria da eskean ibili behar izatea norberaren *presentzia* bermatzeko.

Nekagarria da erne ibili behar izatea lortzen den *presentzia* hori ez galtzeko.

Eta *nekagarria* da hori guztia egin behar izatea, *norberarenak ez diren baliabideekin* eta norberarentzat *arrotzak diren tokietan*.

Norberaren ez diren ispiluetan ikusgarri

Virginia Woolfek esaten zuen emakumeendako nekezagoa dela gizonezkoek betidanik egiten dituzten gauzak egiten hastea. Izan ere, *emakumeon gela gizonezkoen etxean* egoten da. Imaginatu ezazue futbol-txapelketa bat non talde batek beti partidak bere zelaian jokatzen dituen. Talde horrek abantaila agerikoak izanen ditu, besteen aldean. Beste

talde batzuei talde horren zelaian maizago jokatzea egokitzen bazaie, zenbait abantaila lortuko dituzte ohituraren poderioz. Baina horiek izanen ote dira inoiz zelaiaren jabearenak bezain handiak?

*Besteren zelaian jokatuz, bestek garatutako tresnekin, besteren ispiluan begiratzen gara ikusezin izan eta ikusgai izan nahi dugunean. Eta ispiluak ez dira beti fidagarriak*¹⁸.

Ikusgai izateko ikusgai direnen ispiluan begiratu, eta zer ikusiko dugu? Agian, errealitatea, gizakiok uste dugun baino antzekoagoak garelako. Baina gerta dakiguke ispilu horietan gure irudia *lausoa* agertzea, edo *desitxuratua*, eta hori *ikusita* gure ahaleginak areagotu behar izatea, *behar* dugun, eta *merezi* dugun, ikusgaitasuna lortzeko.

Hori gertatzen al zaie jendarteko arlo garrantzitsuetan, politikan eta ekonomian kasu, gizonek bezala jarduten duten emakume askori? Ikusten ditugu halako emakumeak *gogorrago* –eta askotan makur– aritzen direla, gizonen antzera jokatu behar dutelakoan, *gogorrago* bere buruarekin, eta *gogorrago* besteekin (batzuetan are *gogorrago* generokideekin, emakumeekin). Ispilu maskulinoek ezin baitie inoiz eman dagokien neurri doitua.

Oro har, ahalegin handiagoak eta emaitza ikusgarriagoak exijitzen zaizkigu emakumeoi¹⁹, *nor* –*zerbait*– garelara erakutsiko badugu. Baina politikan, ekonomian eta antzeko

¹⁸ Ispiluak ederrak dira, eta beharrezkoak. Baina aizunak izan daitezke. Jendeak bere burua ederrago ikustea nahi duten tokietan, ispilu arrosak jartzen dituzte, zilarrezkoen ordez, horiek itxura hobetzen dutelakoan. Horregatik ez dirudi zuhur erabat fidatzea ispiluekin. Are gutxiago norberarenak ez direnekin. Nonbait irakurria dut: “*Zer ez zaren ikusi nahi baduzu, mirailari begiratu*”.

¹⁹ Emakume jarri beharrean ikusezin sentitzen beste edozein jarrira, berdin funtzionatzen du aferak. Gehiegizko nekerik ez hartzeagatik emakumeen kasuan zentratu dut gaia.

esparruetan aritzen diren emakumeen kasuan, horiek murrerara eramaten dute maiz gizonek bezala aritzeko bereganatu duten esan gabeko agindua. Hori bai, ordainetan *inor baino ikusgarriago* bihurtzen dira, eta ez beti onerako.

Ikusgarritasunaren nekeak eta ajeak

Ikusiak izan nahi eta ikusgarritasunaren xerka abiatzen bagara, *tentazio* handi bati egin beharko diogu aurre: aparta, *perfektua*, izan nahi izateari. Pentsa baitezakegu *balio handiagoa erakutsi* behar dugula ikusgai izatea *merezi* dugula frogatzeko.

Izan ere, *ikusgai* sentitu nahi izatea ez da *apeta* hutsal bat. Pertsonok *beharra* daukagu *estimatuak* garena sentitze-ko. Besteen, gure kideen, *onarpena* behar dugu.

Eta askotan uste dugu perfektuak izanda lortuko dugula. Eta gure *perfektutasuna erakutsi* nahi diegu *guretzat garrantzitsu*, eta horregatik *ikusgai*, direnei.

Baina bide hori *akigarria* da, oso. Akitzen gara *guretzat ikusgai* eta guk inportante jotzen ditugunen aurrean *ikusgai izateko ikusgarri* agertzeko ahaleginetan. Izan ere, ikusiak izateko gure ahalmena ez da gure ahaleginen ondorio (ez bakarrik, behinik behin). Maiz, ikusiak izatea, besteek gu ikusteko duten gogoak, ahalmenak edota beharrak baldintzatzen dute.

Batzuek askotan *ikusi* ere ez gaituzte egin nahi.

Nafarroa Garaian, euskararekin eta euskal kulturarekin gertatzen da. Agintzen dutenek –eta ez naiz ari, soilik, agintze politikoari buruz mintzatzen– hamarkadak daramatzate nafar *identitate* moduko bat eraikitzen non euskalduntasuna –berez eta historikoki nafartasunaren osagai garrantzitsua– bazter utzi duten. *Ikusezin egiten* saiatzen dira, ahal

duten neurrian eta ahal duten orotan²⁰. Ez zaie gustatzen euskalduntasuna. Ez da gustu-kontu hutsa. *Interesa* da gako. Zerbaitetan interesaturik egon edo ez. Horretan interesa edukitzea –ekonomikoa, politikoa, ideologikoa...–.

Agintariak –politikoeak, ekonomikoeak, faktikoeak...– ez dute izan interesik Nafarroa Garaiko euskalduntasunean. Are, interesa izan dute *euskalduntasunaren ezaugarriak nafartasunatik erauzten, desagerrarazten*. Ondoko erkidego batekin bat egingo dugun beldurrez. Eta ondoko erkidego horrekin bat eginez gero erkidego hori eta gu burujabe izango garen ikaraz. Ez du axola beldur horren funtsa erreal den edo ez, benetakoa edo mamu bat. Ondorioak bertsuak dira.

Hamarkadak daramatzagu Nafarroa Garaiko euskaldunok *ispilu-joko maltzur* batean harrapatuta. *Ikusiak izan nahi* dugu Nafarroan, eta ahalegin horietan *indarrak galtzen* ditugu. Batzuetan, gu geu izan beharrean, gure isla nafartasun mota horretako partaideen ispiluetan ikusten saiatu gara –hori eskatzen baitigute, haien antzerako nafarrak izan, eta gure euskalduntasuna ahazteko, *nafar labela* dutenek, horrela onartuko (*ikusiko*) gaituztelako promesa lausoarekin–. Baina, esan bezala, besteen ispilua ez dira beti fidagarriak, *trukatuta* egon daitezke-eta. *Haiei begiratzea* –gu nafartasun jakin bat inposatzen dutenen antzera nafar zintzoak izatea– *ameskeria* da.

20 Ekonomia erabakigarria izan daiteke batzuetan, onerako. Azkenotan Iruñeko euskaldunok espazioak irabazten ari garela dirudi. Ekonomia ongi zihoan garaian, eraikin eta areto gehienak itxi zizkioten euskal kulturari. Azkenotan, ordea, garai batean ameskeria zirudiena –toki jakin batzuetan euskal kulturako adierazpenak izatea– hasi da gertatzen, eta euskal ekitaldiak egiten dira halako lekuetan: Civivox, Baluarte... Euskaldunok balio handiagokoak al gara krisi garaietan?

Batzuetan, zorionez, *geure ispiluak fabrikatzen* ditugu.

Horretan aritu zen Joxemiel Bidador. Nafarroa Garaiko idazle euskaldunak *ikusiaraztea* hartu zuen xede. *Mirail* handia altxatu zuen, euskaraz idatzi duten nafarren testigantza liburu batean bildua, eta ispilu gehiago fabrikatzeko *tresnak* ere jarri zituen guztien esku: bat egitearen onuren ideia oparitu zigun²¹.

Izan ere, elkartzearen ideiak berak zentripetu bihurtzen ahal ditu gure ahaleginak, eta ahaltsoak egin. Euskal kulturaren axola handirik ez dutenei begira, haien ispiluen eske, gaudenean ez bezala. Horrek eragin zentrifugoa baitauka, ahulgarria.

Ikusgarritasunerako garrantzi handia har dezake noren begietan izan nahi dugun ikusgai. Eta nola.

Ikusgarritasuna: ez kuota- ez etiketa-afera

Azkenotan, gero eta emakume gehiagok idazten dute, eta, batez ere, gero eta emakume gehiagok argitaratzen dute, mendebaleko kulturetan²² bezala euskal kulturaren ere²³.

Arrazoa edozein dela ere, pozgarria da euskal literaturaren emakumezkoek ekoiztutako lanetan azkenotan izandako loraldia. Baina horrek –soilik– ez du bermatzen emakumezkoen ikusgarritasuna euskal literaturan, literaturan orokorrean bermatzen ez duen bezala.

21 Baditugu beste zenbait saio indar-biltzaile Nafarroa Garaian. Horietako bat da Euskalerrria irratia, Iruñerrian euskaldunon *ahotsa* hedatzen eta gure *ispilurena* egiten saiatzen den emisora.

22 Ezin testigantzarik eman ezagutzen ez denaz: nik ezin dut kontatu zer gertatzen den mendebaleko eremutik at.

23 Batzuek diotenez, honetan ere zerikusia du sosen aferak. Egia ote da emakumeok *balioa* irabazi dugula idazle bezala emakumeek idatzitako liburuen salmentan gertatu omen den gorakadaren poderioz?

Ikusgarritasuna lortzeko, kolektibo, gizarte-maila edo kultura bat munduaren aurrean ikusgarri jartzeko, ez dute balio ez kuotek ez etiketek.

Ez, behinik behin, orrialde hauetan mintzagai dugun *ikusgarritasunari* dagokionez.

Moldeak dira benetan erabakigarriak, ereduak, jokabideak. Hau da, ikusgarritasunaren nolakotasuna. Orobateko ikusgarritasuna lortuko badugu, moldeak aldatu behar dira –pentsatzekoak eta *sentitzekoak*–, ereduak eta jokatzeko erak.

Alardeetan kantineren antzera –hau da, emakumeoi izateko betidanik exijitu zaigun moduan, izaera-, jarrera- eta estetika-baldintza jakin batzuen pean– ikusgarri izateak ezer ez du aldatzen. Betiko ogibideetan (irakasle, erizain, etxeko zerbitzari...) emakume gehiago aritzeak ez du jendartea berdinzaleagoa eta demokratikoagoa egiten. Eta bestelako lanbideetan emakume gehiago jarduteak ere ez du ezer eransten berdintasunaren aldetik, baldin eta lana egiteko eta banatzeko moduek –lantokietan zein etxetan– betikoak izaten segitzen badute.

Boterean dauden emakumeak asko izateak eta goian ikusgai egoteak ere ez diote balio gehigarririk eransten emakumeen ikusgaitasunari, emakume boteretsuek betiko eredu maskulinoei egiten badiete men. Politikan ari diren emakume askok politika-gizon sartu diren emaztekiak dira, eta ez diote mesederik egiten berdintasunari.

Eta literaturan²⁴, gero eta emakume gehiagok sortzea eta argitara ematea garrantzitsua bada ere, gakoa idaztean baliatzen diren ikuspegi²⁵ berriak –askeagoak, zabalagoak– erabiltzea da²⁶, denok –gizonek eta emakumeek– literaturan (ere) toki egiteko guztiei –sexua edo joera sexualak baldintza edo muga bihurtu gabe–, idazten diren gauzetan ohiko topiko sexistak baztertuta.

Denok –emakume zein gizon– asmatu behar baititugu molde berriak, etxe berriak eraiki, guztientzat baliagarriak. Eta norberak bere ispilua aurkitu, eta hori baliatzeko aukerabideak zabaldu.

Lan handi hori erakargarria izan daiteke, sormen-bideak areagotu, eraberritu, eta askotarikoagoak bilakatzeko balio dezakeelako.

Hitzek errealitatea eraldatzeko ahalmena baitute.

24 Iruzurtia da esatea ez dela existitzen gizonen edo emakumeen literaturarik eta literatura ona edo txarra besterik ezin dela izan. Hori esatean esan gabe iradokitzen baita literatura femeninoa (horren esanahia edozein delarik ere) txarra dela (edo izan daitekeela). Literaturaren *kalitatea* ez da modu horretan aipatzen, proportzio baterako, literatura nazionalak alderatzean, ezta, zorionez, euskal literaturaren kasuan ere (inork hala eginez gero, euskaldunok gaizki hartuko genuke, ezta?). Eta bitxia da: hori ez da esaten, ezta ere, gizonezkoen literaturari buruz hitz egitean. Izan ere, ez da, oro har, gizonezkoen literaturaz hitz egiten... Gizonen literatura Literatura baita, izan, ikusten den bakarra alegia.

25 Batzuek imaginatzen dute *literatura feminista* bat, literatura konbentzionalari kontrajarria, non emakumeak baitira ardatz, arrazoi eta aitzakia (ia) bakarra. Muturrera eramanda, horrek emakumeen alde eginen luke emakumeak emakume izate hutsagatik. Eta irudi horren estakurupean, feminismoak proposatzen duena literatura ez dela diote, ezta unibertsala ere. Ez dakit halakorik existitzen den, baina existitzekotan hori ez da feminismitik aldarrikatzen den literatura. Feminismitik (eta ez bakarrik feminismitik) eskatzen da literatura benetan unibertsala izatea, hau da, guztion mirail, eta pertsona guztiei zabaltzea adierazteko bideak eta aukerak; eta topikoetatik alde egitea. Eskakizun horiek ez dute literatura *eskasago* bihurtzen, alderantziz baizik.

26 Miren Agur Meabek *Kristalezko begi bat* liburuan biluzte psiko-emozionala egin izana, adibidez, berritzailetzat jo izan da. Meabek askotan (beti?) jokatu du horrela, liburu horretan egin baino lehen –poesian ere horrela aritzen baita, ahoan bilorik gabe, eta kalitate-maila handia erakutsita, gainera–. Baina berritzailea da, segur aski, gizon gutxi ausartzen direlako beren baitako korapiloak hain modu agerikoan erakusten –ikusiarazten–.

Ikusgarritasunarantz mintzoen xendatik (edo nola egin gauzak hitzekin)

Horrela, *How to do Things with Words* (Nola egin gauzak hitzekin), deitzen da John Langshaw Austin (1911-1960) filosofo ingelesaren libururik ezagunena. Austinek esakune performatiboak deitu zituen adierazten dutena gauzatzen dituzten esakuneak: Halako esamolde horiek esate edo idazte hutsak esamoldeok diotena gauzatzen du²⁷.

Eztabaida eta teoria ugari izan dira kontzeptu horretaz eta hitzek duten ahalmenaz, filosofo askoren eskutik (Austin bera, Jacques Derrida, Pierre Bordieu, Judith Butler, ...). Ez da nire asmoa inor (ezta neure burua ere...) nekatzea haien ideia burutsuekin, baina guztiak hitzen ahalmenaz hainbeste eztabaidatu izanak zerbait esan nahi du: hitzek nolabaiteko boterea izan dezakete errealitatea aldatzeko.

Gaztelaniaz, eztabaida gogorrak daude genero maskulino eta femeninoaren erabileraren inguruan. Batzuk diote genero maskulinoan denok kabitzen garela, gizonak eta emakumeak. Agian horrela (izan) da, baina ni, emakume naizen hau, hobe sentitzen naiz nirekin femeninoa erabiltzen badute.

Segur aski ohitu naizelako da, baina orain “los niños” entzuten dudanean mutiko batzuk direla pentsatzen dut. Badakit batzuentzat hori ez dela horrela, eta bakarrik gertatzen zaiela hori alderantziz denean: “las niñas” entzuten badute, neskak direla pentsatzen dute, baina “los niños” entzunda neskak eta mutilak direla uste dute.

27 Adibidez, “Zin egiten dut” adierazpena zin bilakatzen da esaten den momentuan, eta ezkontza egiten duenak “Nik ezkontzen zaituztet” esateak ezkongaiak ezkontide bilakatzen ditu hitzok esan ahala.

Demagun hau euskaratu behar dugula: “los niños que van a la escuela”.

Nola itzuliko zenukete? Nik “eskolara doazen haurrak” egingo nuke. Salbu testuak berak edota testuinguruak bestelakorik esaten badidate.

Eta alderantziz, euskarazko “eskolara doazen haurrak” edo “eskolara doazen neska-mutilak”²⁸? Nola eman hori gaztelaniaz?

Batzuen ustez, “los niños que van a la escuela” eman beharko genuke. Nik, ordea, “los niños y niñas que van a la escuela” egingo nuke. Bestela, haurren erdiak ikusezin bihurtzen ari naizela irudituko litzaidake²⁹.

Batzuen ustez, hizkuntza pisu bihurtzen da, eta gehiegi bihurtzeko, betiko esamoldeen ordeztasunak inklusiboagoak diren beste batzuk erabilita.

Nola egiten den. Badira moduak eta moduak, eta hizkuntzek beti ematen dituzte hitzekin jolasteko aukerak³⁰.

28 Kasu honetan euskarazko aukera erraz eta baliozkoak ematen dizkigu. Horrek, hala ere, ez du esan nahi euskararen erabilera sexistarik ez dagoenik (batzuek, baikor eta harro batzuetan aldarrikatu duten bezala...). Baina, oro har, alderantzizko arazoak ematen dizkigu euskaraz batzuetan: Irakaslea, medikua, erizaina emakume edo gizon dela nabarmendu behar izatekotan, “emakume” dela azpimarratu beharko dugu nola edo hala.

29 Betiko geratu zait gogoan bilera hura: Ikastolako irakasleek hizkera ez-sexistari buruzko ikastaroa egin zuten. Alabaren ikasgelako lehen bileran, tutoreak –gaztelaniaz, hizkuntza horretan egiten baikenituen bilerak, guraso askok ez zekitelako euskaraz– zenbait esamolde erabili zituen haurrak izendatzeko: “niñas y niños”, “niños y niñas”, “criaturas”, “personas”... Irudipen izan nuen beste modu batean hasi ginela ikusten gure seme-alabak. Niri “persona” hitzak eragin zidan zirrara handiena. Harrezkerotik *personago* ikusi ditut haurrak oro, neskek eta mutilak.

30 Yoga irakasleak (gizona) oso arau zorrotza du ikasleoi zuzentzeko (gaztelaniaz): emakume gehiago garenean (gehienetan), femeninoa erabiltzen du; gizonak eta andreak erdi eta erdi garenean, bi generoak erabiltzen ditu; ez du gogoan inoiz gizon gehiago ote den emakume baino.

Literatura bera, ez al da hizkuntza ezohiko maneran erabiltzeko jolasa?

Ahotsa ere tresna baliozkoa da ikusgarritasuna irabazteko beharra dagoenean. Ahotsa, zentzu hertsian, eta hitzaren esanahi zabalagoan.

Ikusgai izateko, entzungai ere izan behar dugu. Norbaiti (banako, kolektibo, herri...) izaera murriztu nahi zaionean, ahotsa (hitzak, hitz egiteko eskubidea edo hitzak zabaltzeko bitartekoak) kentzen diote.

Edonori ahotsa kenduta, funtsezko zerbait kentzen zaio.

Ahotsa baita pertsona batek duen funtsezko ezaugarrietan funtsezkoenetako bat. Batzuek diote ez daudela munduan bi pertsona ahots bera dutenik. Kontuan harturik ahotsean eragina duten faktoreen aniztasuna (fisiologia, hizkuntza, familia, kultura, heziketa, nortasuna...), hala izan daitekeela dirudi.

Ikusgarritasunak, ikusia izateak, duen garrantziaz gain, nola ikusten gaituzten ere munta dauka. Eta horretan ahotsak zeresan handia dauka.

Esaten dutenaz gain, ahotsek nola esaten duten ere hartu behar da kontuan. Norbaiten arreta bereganatzeko horri deitu behar diogunean, nola egiten dugun, ikusiko gaitu edo ez: ahapeka ari bagara, agian ez digu entzungo, eta ez dugu lortuko haren arreta geureganatzea. Ozen eta tinko hitz eginez gero, berriz, berehala ohartuko da.

Niri atentzioa ematen dit espainierara egiten diren bi-koizketetan (filmenak, telesailenak...) ahots finak jartzen dizkietela emakumezkoei. Jatorrizkoek dituztenak baino askoz finagoak. Eta jatorrizkoak amerikarrak direnean are

nabarmenagoa da, emakume amerikarren ahotsak askoz lodiagoak diruditelako espainiarrak baino.

Kulturala da hori? Zerikusia du emakumeen ahotsen mardulak haien ikusgarritasunarekin? Eta gurean, nolakoak dira euskal emakumeen ahotsak? Eta gizonezkoenak? Eta literaturan, badugu euskal ahots bat, berezkoa, euskal tonu eta tinbre jakin batzuekin?

Galderak airean zintzilik, behin kantu gregorianoari buzur irakurri nuen zerbaitekin akordatu naiz.

Hasieran askoz tonu baxuagoetan kantatzen omen zen. Denborarekin ahotsak findu ziren, tonuek gora egin zuten, tonu baxuak lurtiarragoak direlakoan (sexuari eta gorputzari lotuagoak-edo) eta altuak, espiritualagoak. Baina tonuak fintzeak ahots-arazoak sortu omen dizkiete lekaima eta fraideei batzuei *beren* ahotsetatik aldendu behar izan dutelako.

Literatura ahozkoa eta idatzia izan daiteke. Baina idatzian ere ahotsa dago. Idazlearen ahotsa.

Literatura aldi berean ahots –idazlearen ahotsa– eta bozgoragailu da –ispilu–, idazleak nabarmendu nahi dituen gauzen eta pertsonen oihartzuna ematen duena. Hizkuntza batean egiten den literaturak hizkuntza horri lotutako kultura islatuko du, hori eginen du *ikusgarri*. Ez da izango kultura horren tradizioaren errepikagailu hutsa, baina tradizioa (kultura eta hizkuntza horrek bilduta daramatzaten ahots, tinbre, tonu eta istorioen altxorra) hartuko du kon-tuan (batzuetan ia ohartu gabe eginen dute hori idazleek), baita tradizio horretatik urrundu edo hartan haustura egin nahi denean ere.

Ez zait iruditzen huskeria euskal idazleek eta itzultzaileek euskal tradizioaren itsasoan —ez bakarrik idatzizkoan, ahozkoan ere bai— murgildu eta hortik zer atera daitekeen aztertzea. Euskara batuarekin eta itzulpengintzan sortzen diren arazo batzuek irtenbidea hor egon daiteke. Eta munduaren aurrean geure ispiluan islatuta errealitatea aurkezteko era izan.

Eta zer diren gauzak, ikusgarritasunari buruz mintzatzen hasi eta ahotsa hizpide amaitu dut. Entzungarritasunari buruz ere —entzungarri ote garen edo ez, nori entzuten zaion eta nori ez, nork nahi dugun guri entzutea...— asko esan daitekeelako, eta idatzi.

Aitortza (sortze-prozesuaz) eta eskertza (jasotako laguntzagatik)

“Bihotzaren mintzoa mila aldiz askotarikoagoa da adimena baino, eta ezinezkoa da ematea haren dialektikaren arauak” (Diderot)

Orrialde hauei buru ematen ari naizen honetan, ez dakit, benetan, zer egin dudan, nolakoa den idatzi dudana. Handipen handiko ispilu bati begira bezala nago, eta kostatzen zait neurtzea egindakotik egindakoa behatzen duenarengana doan distantzia.

Artikulu hau idazten hastean esperimendu bati ekin nion: nire buruari neure ispiluan begiratzeari. Ikusgarri egin nahi nuen, niretzat eta besteentzat, nola jokatzen dudan sormen-lan bati heltzean. Zer pausu —aurrera zein atzera—, zer ideia —oroipen eta emozio—, zer inguruabar —kanpoan eta nire baitan— sortzen diren idazteari ekin aurretik, idatzi bitartean, eta idazlana burutzean. Hori aztertzen aritu

naiz artikulua idatzi bitartean. Bi prozesu paralelo izan dira: idazkuntza eta behaketa.

Beste gauza bat egin dut, arriskutsu samarra: bihozka-dei utzi diet lema, horiek senaren iparrorrazari helduko ziotelakoan. Ez da horrela gertatu (erabat), eta jarraitu ez badiot ere halakoetan ohikoa den metodo logikoari, ingelesez *Introduction, Body, Conclusion* horrek laburbiltzen duen arauari —eta hori egin ordez, saltoka ibili banaiz ere, harat-honat, alha kanpoko larretan zein nire baitako ganbelan bilatuta—, ez dut lortu hasieran xede nuena, arrazoimenaren gehiegikeriak behar beste uxatzea: gauza asko abstraktuegi joan zaizkit. Horregatik jarri ditut atal honen hasieran Dideroten hitzak. Askotan etorri zaizkidalako gomotara.

Nolanahi ere den, horri esker nire ohiko metodoa identifikatu dut: anabasa du izena, eta deserosoa da, aitortza hau egitea bezain deseroso.

Horri eskertu —edo egotzi, zer duzuen nahiago— behar diozue, baita ere, konklusiorik ez izatea batzuetan predikuen antza gogaikarria hartu duen idatzi (azkenean luze) honetan.

Saiatu naiz aske ibiltzen, Woolfek aholkatzen duen moduan, baina ez dut erabat lortu, besteak bes-

te, ezin izan dudalako akabatu “etxeko aingerua”³¹ –emakumeoi, idaztera jartzen garenean, besteak beste gure kabuz pentsatzen duen adimena dugula inoiz ez erakusteko eta aratzak izateko gomendatzen digun mamu hori–: besteekiko aferek sarri desbideratu naute ildotik, eta denbora eta alderdi konplexuago batzuei heltzeko go-go lapurtzen utzi diet. Eta ez dut nahi nuen bezain ausart jokatu: isildu ditut gauza batzuk, batzuetan ez ditudalako aurkitu haiek adierazteko hitz egokiak, eta beste batzuetan goxo-edo jarduteko agindu isilaren eraginez.

Lana geroratzen ere ibili naiz behin baino gehiagotan. Eta behin psikiatra bati aditu nionarekin gogoratuta (inor ez dela berez alfer edo nagi, eta nagitasunaren atzean beti dagoela erresistentzia edo eragozpen bat) adia jarri, eta beldur batzuk atzeman ditut: zerbeit itxurosoa ez egiteari, jendearen aurrean gaizki aritzeari, perfektu ez izateari... Laburbilduta, jendaurrean *ikusgarri* agertu eta *nabarmen* gelditzeari.

Zalantza batzuk ere bai: Gaiaren zein esandakoen garrantziaz eta beharraz, adierazteko eraren egokitasunaz...

31 *The Angel in the House (Etxeko Aingerua)* Coventry Patmorek idatzitako poema bat da, XIX. mendearen erdialdean Emily bere lehen emazteari eskainia. Oso ezaguna egin zen XIX. mendearen bukaeran, eta eragina segitu zuen izaten XX. mendean ere. Emakume *perfektuak* dituen ontasunen zerranda luzea da, non etxean guztien zerbitzura dagoen izaki goxoa eta ezta baita emakumea –sufritzen duenean ere ezti agertu behar duena–. Virginia Woolfek poema kritikatzan du *Professions for Women* izeneko artikuluan (hitzaldi luzeago baten laburpena dena). Horretan Woolfek idaztean hurbiltzen zaion mamutzat jotzen du *Etxeko Aingerua*. Deskribatu egiten du, eta hura hiltzea aholkatzen du. Pasarte benetan dibertigarriak ditu. Horregatik biziki gomendatzen dizuet *Etxeko aingerua* izenburuarekin Ana Moralesek Xerezaderen Artxiboan entzungarri jarri duen artikulua euskarazko bertsioa. Izan ere, biziki gomendatzen dizuet artxibo horretara bisita egitea, aipatutako grabaketa hori eta beste edozein entzutera.

Nire burua mamu ikusezin batzuekin alderatzen harrapatu dut behin baino gehiagotan besteren ispiluetan.

Azkenik, itsasaldi honetan kemena eman didaten hiru emakumeri eskertu behar diet artikuluan murgildurik eta ur handi eta nahasietan ia hondoratuta nebilela salbamendu-txalupa bat eman izana. Bi aipatu ditut jada: Virginia Wolf eta Ana Morales. Hirugarrena, haiengana bideratu ninduen da, Itziar Diez de Ultzurrun, zailtasunen inguruan mintzatzean berehala konprenitu zuelako zertaz ari nintzen, eta bide on batetik abiatzeko gonbita egin zidalako. Hala heldu nintzen *Xerezaderen Artxiboaren* portura, eta bertan, *Etxeko Aingerua* entzutera.

Euskarazko olerkariak, ikusezinak Nafarroa Garaian

Josu Jimenez Maia

Nafarroa Garaian hezur-haragizkoak izanagatik, euskaraz poesia idazten dugunok ikusezinak gara, baita literaturazale eta idazle erdaldun elebakar anitzendako ere; salbuespenak salbuespen, euskaraz idazteak ikusezin bihurtzen gaitu.

Ikusezintasun hori ez da, haatik, ausaz sortua. Euskara bera ikusezin bihurtzeko ahalegintzen dira, adibidez, Iruñeko edota Lizarrako udal agintariak: legez ele biz agertu beharreko seinaleetan euskara tamaina txikiagoan eta kolore gris lausoan agertzeko neurri politikoak horren adierazgarri dira, Iruñeko Hiria poesia lehiaketak soilik gaztelaniazko modalitatea izatea bezain adierazgarria. Eta bakarrik beste adibide bat ematearren, azken —azken?— bitxikeria: Foruzaingoaren auto gorri zenbaitetan euskarazko “Foruzaingoa” hitzak ezabatu eta gorritz estali berri dute, erdara hutsez *Policia Foral* utzita.

Gogorarazi behar da, 1986ko abenduaren 15eko Vasconcearen Lege zaharkituaren ondorioz, Nafarroa Garaia hiru zatitan banatuta dagoela: zonalde vascofonoa, mistoa eta ez-vascofonoa. Baina, gauzak zer diren, Nafarroa osoan ez dago ingelesez ikasteko neholako arazorik, zin-zinetan, Nafarroa osoa zonalde anglofonoa balitz bezala... Kasu! ni neu ingeles irakaslea izanik, ez nago ingelesezko irakaskuntzaren aurka; ingelesari bai, baina ez edonola.

Euskal kutsu duen edozeri dioten gorrotoa ez da, soilik, jende ezjakin eta arlotearen ezaugarria. Horren erakus-

garri, lot nakion duela urte batzuk gertatutako pasadizo adierazgarri bati. 2005eko ekainaren 3an, Iruñeko Artxibategi Nagusian, estreinakoz ospatu zen Nafar Poesiaren Bestan gertatutakoa. Hitzaldi guztiak erdaraz zeuden iragarrita, eta hitzaldi horietako bat institutuko nire literatura irakasle batek, Tomas Yerro adituak, eman behar zuen. Yerro irakasleak emandako hitzaldi ederraz bi ondorio garbi atera nuen: bata, Yerrok asko zekiela Nafarroa Garaiko erdal poesiaz; bi, poeta euskaldunak ikusezinak direla haren begietarako. Izan ere, euskarazko poeta bakar bat ere ez zuela aipatu: ez Castillo Suarez, ez Juanjo Olasagarre, ez Josetxo Azkona, ez Angel Erro, ez Mikel Taberna, ez Luis Garde, ez Bego Zestau, ez Joakin Balentzia, ez Fertxu Izquierdo... Denak ikusezin bista ezin hobea duen irakasle zinetan on-on batendako.

Egia esan, ez ninduen harritu euskal poeta bat ere ez aipatzeak, zeren eta Iruñeko Artxibategi Nagusiko biltzar horretan parte hartzeko, hitzaldien zerrendan sartu ahal izateko, trikimailu bat baliatu behar izan genuen, eta Harbelex taldearen izenean eman genuen izena. Entzuleek ez zekiten zer zen, eta hitzaldia euskara eta erdara tartekatuta egin nuen, erdaraz esandakoa euskarazko ñabardurekin aberastua, han zeuden euskaldun elebidunak asper ez zitezten eta erdaldun elebakarrak joan ez zitezten euskarazko lehen hitzak entzun ahala. Hartara, denek ala denek bukaera arte entzun behar izan zuten. Eta orduan aitortu nien ni talderik ez den talde bateko ordezkaria nintzela, Harbelex iruzur bat zela, ikusezinen taldea, eta ni talderik gabekoen taldekidea nintzela. Bukaera-bukaeran esan nien zer den

Harbelex, Akitaniako jainko baten izena baita, Juankar Lopez-Mugartza poetak asmatutako trikimailua¹.

Hori horrela, ikusezinok adierazi genien euskaraz idazten dugunok hemen gaudela, eta goian aipaturiko poeta horiek guztiak aipatu nituen. Amaitzeko, bihotz-bihotzez eskertuta hitz egiteko aukera eman izana, zubiak egiteko, elkar ezagutzeko, denok gozatzeko literatura eta poesia.

Trikimailu hori baliaturik ikusi gintuzten ikusezinok. Baina ez gaitezen engaina. Batzuetan aukerarik ere ez digute ematen, eta ikusezinak gara ikusi nahi ez gaituztelako. Horra hor aurten bertan argitaratu den liburu batekin gertatutakoa.

Nueva Poesía en el Viejo Reyno izen hanpurusarekin argitaratu zen 2012ko abenduan Hiperion argitaletxe espainolaren eskutik, eta zortzi poetaren laginak biltzen dira... eta olerkari euskaldun bat ere ez da bertan agertzen².

Areago; argitalpenaren koordinatzaileari kontu eske joanda, euskaldun bat ere ez sartzeko azalpen lehor hau eman zidan: Ameriketan ere saldu nahi zuten liburua eta horregatik ez zuten euskarazko olerkirik jarri (sic); eta gero, benetako arrazoia aitortu zuen: Nafarroako Gobernuak zegoen ekimenaren atzean sustatzaile eta pagatzaile eta Nafarroako Gobernuak diruz sustatu eta lagundu duen liburua zela, enkarguz egindakoa. Kritika jasota, koordinatzaileak esan zidan agian etorkizunean ere euskarazko bilduma antzeko bat atera daitekeela, bera ez zegoela kontra...

1 Ikus Nafarroako Liburuzaien Elkartearen, ASNABI elkartearen, TK aldizkariaren 22. zenbakia, 2010eko abendukoa

2 *Nueva poesía en el viejo reyno. Ocho poetas navarros*, Hiperión, Madrid, 2012

Gai honen haritik, Juankar Lopez Mugertzak tristeziatzat idatzi zuen bezala, “Nafar Poesia markaz jabe egin dira, nafar poesiaren barruan euskaldunok ere bageundela uste bai-kenuen... baina, agian, Auxtin Zamorak dioen bezala, ez dugu horrenbestez poesiaz kezkatu behar euskaldunok, eta ardu-*ra* gehiago erakutsi behar dugu olerkigintzaz. Izan ere, gu ez gara poetak, ez dugu poeta izan nahi, ezta nafar poetak ere... erdaldunek ez baikaituzte ere poetatzat hartzen, ezta nafar poetatzat ere... eta guri bost axola!! Gu ez gara poetak, olerkariak baizik!! Gora Nafar Olerkigintza!! Pikutara poesia!!”³

Bestalde, egia da euskara eta euskal literatura ikusgarri egiteko hamaika ahalegin txalogarri egiten direla: irakurle klubak, literatur solasaldiak, tokian tokiko euskara teknikarien programak, euskara taldeen ekimenak... denak beharrezkoak eta sustatzeko modukoak... baina ez gaitetzen engaina: Gobernuako kideak euskara sustatzeko baino, euskara *asustatzeko* apustua egiten dute.

Eta Gobernuako kideek ez ezik, bere burua intelektualtzat eta jakintzat duen jendeak ere jarrera sektarioak izaten ditu euskararekin. Nik ezagutzen dudan Haiku poesia japoniarren mikro kosmos txikian ere, bada jendea haiku txiki bat euskaraz irakurtzeko ahalegin txikiena ere egiteko prest ez dagoena, euskarazko haiku-liburu bat eskuetan hartzeko gauza ere ez dena “¡Es que no entiendo!” aurpegi-*ra* boteaz... Baina lagun hori bera da japonierazko *kanji* batzuen aurrean ahoa zabalik gelditzen dena, japoniera zipitzik ere ulertu gabe, jakina.

3 <http://aspaldiku.blogspot.com.es/2012/04/aspaldikuren-berri-txarra.html>

Ikusezinak, bai; ez baitago itsu okerragorik ikusi nahi ez duena baino.

Eta poesiaren alorrari lotu natzaio, baina, oro har, nago prosan ere antzeko zerbeit gertatzen dela...

Euskal Literatura ikusezina Iparraldean

Ixabel Etxeberria

Hemen aipatuko den gaia, izenburuari begiratuz gero bederen, nahiko zabala da, orokortasunetan egotera ekar lezakeena, topikoetara hurbiltzeko erraztasuna ekar lezakeena. Gaur egun merkatuak manatzen duelarik, dirurik ematen ez duenak zer balio du?

Izan ere, gaur egungo gizartean zer da literatura?

Gureari dagokionez, hizkuntza gutxituen literaturak zein toki duen, hizkuntz gutxituan idaztea zer den aztertzea gai nahiko korapilatsua bada, ausardia eskatzen du. *Allez*, uretara botatzen naiz, frantses hutsean erraten den bezala.

Asko idazten da

Ipar Euskal Herrian idatzi asko daude, luma bezainbat, egoera, interes, helburu, proiektu eta motibazio handiak, txikiak, desberdinak. Horren ondorioz, hemen irakurriko dena esperientzia bakarra dela azpimarratzekoa da, urte batzuetako ibilbide baten gogoeta, lurralde konkretu batean, errealitate zabal bati begirada soil bat.

Idatzia pertsonala da, bakartasunetik abiatzen dena, gutxi konpartitzen dena, bakarretik bakarrera, orokorretatik urrun, norberaren nortasunetik heldu dena, besteengana heltzeko. Ekintza indibiduala, egia partikularra kontatzen duena, ez gehiago. Bakar batzuen kasuan onarpen unibertsala lortuko duena.

Gaur egun, sekula baino gehiago idazten da, genero guztiak segurtatuak dira eta ahantzitako batzuk ere biderkatzen ari dira. Kanpoko antzerkiak, adibidez, gero eta

maizago ematen dira, plaza okupatzeko talde-dinamikaren bultzatzeko nahia ageri da,; Kabalkadak, toberak, karrikako antzerkiak, (Libertimenduak deitzen dira beraz hitz hautatua da, beharrezkoa)entretanimenduak. alde-dinamikan oinarrituak, baina askotan idazle bakarrak sortuak. Talde-idazketa lan pisua izaten da, askotan baztertua izaten da eta taldelana antzerkia taulartzeko soilik erabiltzen da.

Genero guztiak, luma desberdinak, anitzak, publiko ororentzat. Aipagarria da kanpoko antzerkigintzak lortu duen arrakasta azken urteotan, eta horrekiko gosea nabarmena da.

Baina, ez da antzerkia bakarrik, eleberriak, prentsa-artikuluak, adin guztietako idazleak daude. Urtero, Pazko astelehenez Saran antolatzen den idazleen biltzarrean, euskarazko argitalpenak biderkatzen dira. Mota guztietakoak dira, eskaintzek gustu guztiei erantzuten dizkiete, eliza liburuetatik hasiz komikietara heltzeko, horiek gehienak ipar Euskal Herriko idazleen eskutik.

Euskalki guztietan idazten da

Luzaz pastoralak interes berezia pizten zuen, urtero sekulako auto-ilarak joaten ziren Xibero aldera urteko ekoizpenaren ezagutzera. Askotan komentatzen zen pastoraleko testua euskaraz idatzia zela, baina partaideen arteko komunikazio-hizkuntza frantsesa zela. Ez dakit, ez naiz inoiz partaide izan, dakidan bakarra da euskara ez dela Xiberoko hizkuntza nagusia. Haatik, aitortu behar da pastoralak modernizatu direla, bertan lantzen diren gaiak beste eremu batzuen hunkitzera joan direla. Pertsonaia nagusia abertzalea ere izana da, Agirrek berak pastoralaren per-

tsonaia nagusiaren izateko ohorea izan zuen. Ez da gutxi hain biltzaile den ekintza kulturalarentzat!

Pastoralaz gain maskaradek ere jarraitu dute, hor ere hizkuntzaren aldetik ariketa potentea izaten da, karrikan berean, karikatura, umorea, ironia, trufa, salaketa eskaintzen duen ikusgarri zalapartatsua. Urte batez ez emateko arriskuan egon da maskarada, antzerkilari euskaldunen eskasiagatik, baina ez bertzalde publiko eskasiagatik. Gai berriak joan dira lantzen zubereraz, hizkuntza modernizatzen joan da eta gaurko gizartean aipatzen diren gai guztiak tokiko hizkuntzan lantzen joan dira, ekonomia, politika, literatura, kirola, herritar guztiak intereseko dituztenak. Ikastolan ibilitako gazteen baitan oihartzun berezia dute aitzinatze horiek ere, noski, horiek osatzen baitute euskaldun belaunaldi berria.

Proposamen horiek guztiak garai berrietan sartu dute hizkuntza. Irratiek ere noski ardura handia izan dute aldaketa horietan. Bi irrati, Xiberoko Botzak eta Irulegiko irratia, partaide handiak izan dira aitzinatze horietan.

Horrez gain, Xiberoak eskaintzen dituen kultura proposamenak anitzak dira, ez dira gelditzen ekintza tradizional soiletan, beste pasterala motak plazaratu izan dituzte, besteak beste. Ekintza horiek aldi oro arrakastatsua izaten dira, askotan elkartasun ekintzak izaten dira.

Kemen horrek literatur ekoizpen asko sortu ditu, idazle askoren lanaren fruituak dira, sorkuntza kolektiboak, bizipenak, ofizialtasunik gabe, baina herritarren baitan sustraituak. Xiberoan euskara hizkuntza gutxitua baldin bada ere, ekintza kulturalak Xiberoko hizkuntza biziartzten dute gaur egun.

Baxe-Nafarroan antzerkigintzak ere euskalkiak biziarazi ditu, sorkuntzak anitzak dira, publiko zabala (publikoa ez da zabala handia baizik, kopuru handia) erakartzen dituzte, barneko antzerkiak gelak betetzen ditu, euskaldunak ikusgarriz gose izaten dira.

Noizbehinka ulertzeko zailtasunak agertzen dira, euskaldun zaharrak soilik ez baitira antzerkiz gose, baina antzerkiaren kode bereziek euskaldun berriak laguntzen ohi ditu hizkuntzaren ulertzeko bidean.

Antzerki mota desberdin horietan aritzen diren idazle guztiek ekarpen handia egiten dute euskararen alde, literatura sorkuntzan, eta motibazio desberdinak baldin badituzte idazteko, horretan ez naiz sartuko bakoitzari dagokiolako horretaz aritzea, komunione batean daude publikoarekin, publikoak erantzuten baitu ikusgarri horiek guztiak eskainiak direlarik. Gehiago ere, azken urteetan kabalkada berriak sortzen ari baitira, tradizio hori berpiztuz, modu horretan bertako historia berriro ere bisitatuz. Ekintza horiek tokiko hizkuntzan idatziak dira ahal bezainbat.

Gisa berean, “Iduzki Lore” antzerkia, inkisizio-garaia gogoratzen duena, herritarrei bertako gertakariak kontatu nahi dizkiena, Lapurdiko euskalkia hobesten saiatzen da. Kontakizunari nolabaiteko indar berezi bat emateko, bertakoei historia hurbilago egiteko. Ofizialtasunik gabe ere euskarak plazak betetzen ditu.

Publiko berria

Publikoa aldatu da, ez dugu hain errexki ezagutzen. Lehenago idazten zena euskaldun askorentzat idatzia izaten zen eta, esate baterako, Herria astekaria ia-ia etxe guztietan irakurria izaten zen, elizetako atarietan salgai baitzen. Aukera

gutxi publiko zabalarentzat. Gaiak askoz ere mugatuagoak. Etxeparek bere liburuekin beste aukera batzuk proposatzen saiatu zen. Euskal idazleen artean ez zen hain ongi ikusia, mundu oso txikia zen, gehien bat apezten eskuetan.

Gaur egun proportzionalki idazle asko daude irakurle gutxiagorentzat. Irakurleak frantsesez alfabetatu dira. Duela gutxi euskarazko alfabetizazioa hasia da, eta euskal egunkariak toki handia izan du arlo horretan. Beste irakurketendako, intimitatean egiten direnak, publiko oso mugatua dute. Frustrazioa izan daiteke publiko zabalagoa nahi duen idazlearentzat.

Haatik, muga zirudiena aukera gehiago izaten ari da, itzulpengintzak ateak irekitzen baititu. Orain badakigu Itxaro Borda idazlearen lanak itzuliak direla, ondorioz bere publikoa zabaltzen joanen da, beste irakurle motak hunkituko ditu, espazio berriak irekiko zaizkio. Mugak ez dira berdinak.

Horrez gain, interneten bitartez eta argitaletxeen arteko harremanen bidez, idazleak gehiago mugitzen direlako eta Hegoaldeko irakurlegoa irekiagoa izaten delako, Iparraldeko idazle batek aukera dauka Hegoaldeko publikoaren hunkitzeko

Euskara batuak ateak ireki ditu, hizkuntza batua garatu da, idazle bakoitzak bere musika baldin badu ere, hertsadurra gutxiago daude, zubi gehiago, trabak baino. Mundu berri bat eraikitzeko nahia sumatzen da, norberaren nortasunaren gordetzeko grina baldin bada ere. Idaztea sortzea da, bakoitza bere mundua garatzen joaten da, hitzen bitartez euskaldunen arteko sokak lotuz.

Gurea delako

Zergatik euskaraz idazten jarraitu hitzunen kopurua txikitzen ari baldin bada? Euskara gurea delako. Besteek askoz hobeki idazten dute frantsesez? Ez, euskaraz idazten duten idazleek frantsesez ere idazten ahal dute. Batzuetan ere egiten dute. Euskal Herriarentzat interes berria sortu da azken urteetan frantses literaturan. Ez dakit literatur handia izanen den, baina Ipar Euskal Herrian kokatzen diren eleberriak agertzen dira, gero eta ekoizpen gehiago eskaintzen zaie irakurleei. Ipar Eskal Herrian modan jarri da, merkatu berria sortu dute. Baina gurea bestelakoa da, ez dio merkatuari soilik erantzun nahi.

Sentitzen dudana adierazteko nire barneko hizkuntzan idazten dut. Sentitzen den bezala idazten da. Erran nahi dena erran nahi den moduan egiten da. Badakit hau ez dela hemen bertan, lurralde honetan, gorai patzen den hizkuntza. Bertan aitortzen da gaur egun hizkuntza badela, diru-laguntza eman behar zaiola; aldiz, ez da onartzen bertan hizkuntza horretan egin behar denik. Euskara ulertzen ez dutenentzat eta bereziko podere dutenentzat, Euskaraz idazten dutenak lumak dira, bazterretako lumak, ez da zalantzan jartzen onak direnik, ez dakite, ez dute ulertzen, euskaraz bizi den mundua kuriositatea da, utzi behar dira, bestenaz oldartuko dira, beren gisan utzi behar dira, baina gauza serio sak, benetan garrantzia dutenak, horiek frantsesez egiten dira. Horrela da! Ez gara etengabe borrokatuko. Berdin jarraituz gure leerroa zabaltzen dugu. Haien bazterketa gure eremua izanen da, baina gurea. Hizkuntza bezala, gurea, lantzen duguna, garatzen duguna, gustura gurea egiten dugulako. Besterik ez. Inor zapaldu gabe. Inoren zapalketa edo bazterketa ez onartuz. Haien ezjakintasuna nagusitzen bada ere.

Jules Ferry dute gogoan oraindik, haien eskola formatu zuen Errepublikaren gidaria, euskara eskolatik kanporatu zuena. Euskara itzuli da eskolara, euskal idazleen lanak ere aztertzen dituzte bertan. Gaur egun egiten den literatura irakurriko da biharko eskoletan. Gurea ez da soilik iraganean oinarritzen, geroan baizik.

Gure historia delako

Asko idatzi da Euskal Herriaz, frantses idazleak irakurtzea maite dugu Euskal Herria aipatzen dutelarik. Bagarenaren froga balitz bezala. Kanpokoen lekukotasuna beharrezkoa bagenu bezala segur izateko mundu honetan bizi garela, bizi izan garela, pentsa, Victor Hugo... azken batean Ipar Euskal Herriaz ez da horrenbeste idatzi! Hemendik asko igaro dira, herrialde hau lehertu dute, zapaldu, miserian utzi eta urrunago joan.

Horregatik, besteek ez badute gure historia kontatzen, guri dagokigu horren egitea. Gure memoria zaintzeko modua bada, gure buruaz dakiguna ezagutarazteko.

Urrunago joanez, gaur egun euskaldunak ez baitira toki berean gelditzen, kanpora doaz, munduaren bira egin eta, bizitzeko modu bereziak kontatzen dituzte. Gure hizkuntzak bidaia asko eta handiak behar ditu, aberasteko, erakargarria izateko. Izan ere, euskaldunen kopurua igotzeko gure munduak, gure hizkuntzak herritar berriengana heltzeko gaitasuna izan beharko duelako. Ipar Euskal Herriko herritarrak ez dira denak bertan sortuak, ez dira denak modu berean bizi. Gure historia kontatu behar diegu, mundua euskaraz ezagutarazi behar diegu, lurralde honen hizkuntza dela senti dezaten.

Idazlea galdu da ahair baten lanbropean

Gotzon Barandiaran Arteaga

Euskal Herriaren historia gure kantugintzaren bitartez ezagutu daitekeen galdetu genion Itxaro Bordari Baiona Ttipian. Baietz erantzun zigun, ezelango zalantza barik, bai.

Zuhaitzetan den ederrena da
oihan beltzian pagoa...
Orreagako mendi gainetan
badabil euskal-gogoa:
Galernen eta gerlen artetik
mendetan barna xut doa,
pagadoietan ixilik kontuz
Europakoen geroa.

Zenbat gerlari, sarraskiz gose,
odolez eta suz hordi,
Europatarrak zanpatu nahiz
iragan denik horgaindik!
Ibañetako mendi lepoa
heietaz mintza baladi,
aipa letzazke lehen-lehenik
Arrolan eta Karlandi.

Buru-gabetu, bihotzez hustu
jendalde lehertuekin,
mundu guztia nahiko zuten,
beren azpiko bategin.
Euskal jendeak, denen gatik xut,
gogor jeikitzen du jakin
mendi gain hautan, burua gora,
gizonak gizon dagotzin.

Indarkeriak ezarri mugak
kraskatzen hasi orduko,
Euskal gogoa noiz da
jauziren arranoaren pareko?
Azpilkueta bezein kartsuko
eta jakintza gaitzeko
gizon libroak noiz ote dire
Orreagatik jaliko?

Zoin den pizgarri mendietarik
jauzika doan xirripa...
Euskal-semeak, Aiten gogoa
bihotz guziaz hurrupa!
Altxa burua, denek bat kanta:
Euskal Gudua gaur aipa:
Entzunik zuen irrintzina,
xutik jar dadin Europa!

Xabier Iratzederren hitzokin sortu zuen *Orreaga* kantua Benito Lertxundik 1981ean plazaratu zuen *Altabizkar-Itzaltzuko bardoari* diskoan. Bilduma berean, Jose Angel Irigaraik *Orreagako gatazka* hari buruz idatzi zuen poema errezitatu zuen. Itzaltzuko bardoa dakarkigute. Bardoa, gertakari historiko zein sozialak herriz herri kontatzeko kantatzen zuen poeta, ahozko idazlea. Kristauen kristo osteko 778. urteaz ari gara. Noiztik dira bidelagun idazlea eta musikaria? Noiz desagertzen da lehena bigarrena nabarmenduko delarik? Idazlearen berbek ederragotzen dute kantua? Musikariaren hutsak zatartzen ditu poemak?

Gabriel Arestik idatzi eta Oskorrik *Gabriel Arestiren oroimenez* diskorako ahaietutako *Oinaz eta Ganboa* kantua entzunez ohartu ginen euskaldunon arteko konponezinak ez direla atzo goizekoak, 1976an plazaratutako disko hartarako Arestik idatzitakoak iraungitu gabeak direla. Borroka armatuaz ari dira, adiskidetzeaz, 2014az.

Burruka armatu batetan hiltzera doanak
bizitzea emateko, arrazoi gogorrak
atera behar ditu bere erraietatik,
bere hesteetatik. Kolore bategatik,
arrosa bategatik, hodei bategatik,
absurdu da hiltzea.

Gure historia kontatu digutenek
beti esan digute euskaldunok,
burruka armatuetan,
kolore bategatik, arrosa bategatik,
hodei bategatik, hil garela;
eta hori ez da egia, gerra guztietan
arrazoi sakonagoak egoten direlako
esate baterako gutxiren asean
eta askoren gosea.

Euskal herrian ere
hala gertatu delako beti,
batzuek dirua dute eta gehienok izerdia.
Zergatik burrukatu zuten orain bostehun urte
Oinazek eta Ganboak?

Oinaz eta Ganboaren
errierta handia,
ikusirik lur zelaia
jota dago mendia.
Su gabe dago zuzia,
su gabe ilendia.
Seinale gertuagorik
esazue non dia?

Mondragoe hartu dute
oinaztarrek traizioz
gero salduo Bizkaia
urreaken prezioz
ezagutuko baitira
Judasen ofizioz.
Euskalerria beteko
tatxaz eta bizioz.

Oraindik hementxe gaude
Oinaz eta Ganboa
Oinaz zaldunaren pean
Ganboa naiz mandoa.
Gure gorroto bizia
ez baita aurtengoa
gure arrazoi guztia
hasarrez hemen doa.

Bostehun urtean egon
gara justizi-eske
baina sua eta ura
ezin nahas ditezke,
irakin edo amata
ez dago ezer beste,
inork ez dezala esan:
“adiskide zaitetzte”.

Euskalduntasunaren sinbolo nagusiari, faxismoari aurre zutunik egin dion herri baten ikur nagusiari kantatu zion J.M. Iparragirrek, XXI. mendeko ezkertiar ateok ere emozioz errepikatzen ditugun berbokin:

Gernika'ko Arbola
Da bedeinkatua
Euskaldunen artian
Guztiz maitatua.
Eman da zabaltzazu
Munduan fruitua
Adoratzten-tzaitugu
Arbola Santua.
Eman da zabaltzatzu
Munduan frutua
Adoaratzen-tzaitugu
Arbola Santua.
Gora gora
Jangoikua eta
gure Lege Zarra.

Euskalduna baletan Ternuarat joan zenez geroztik kantatu diogu migrazioari, deserriari, atzerriari, herriminari. Kantagai horixe dute gure abesti kantatuenetako batzuk, gehienetan idazlea, zenbaitetan musikagilea ahantzirik, belaulaldiz belaulaldi transmititu direnak.

‘Agur Xiberua’

I

Sor lekhia ützerik gazte nintzalarik
Parisen sarthü nintzan korajez betherik
Plaserez gose eta bürian hartürik
Behar niala alagera bizi
Bostetan geroztik
Nigar egiten dit
Xiberua zuri

Errepika

Agur Xiberua
Bazter güzietako xokhorik eijerrana
Agur sor lekhia
Zuri ditit ene ametsik goxuenak
Bihotzan erditik
Bostetan elki deitadazüt hasperena
Zü ützi geroztik
Bizi niz trixterik
Abandonatürik
Ez beita herririk
Parisez besterik
Zü bezalakorik

...

Gehienbat antzerkirako testuak idatzi zituen Pierre Bordazarre *Etxahun Irurirenak* dira hitzak.

‘Oi ama Euskal Herri’

Anai etxen da ezküntü
bükatü niz oain joaitera
ene opilaren egitera
Pariserat banüazü

Oi ama Euskal Herri goxua
zutandik urrun triste banüa
adios gaixo etxen dena
adios Xiberua. (bis)

...

Herrikoitzat ditzakegun bi kantuotan, Euskal Herritik urrundu behar izateaz gainera, itzultzeko desioa azpimarratu zuen Etxahun Irurik, gure literaturaren historian kantatuena izan den Joseba Sarrionandiak etengabe errepikatzen duen hori, etxera itzultzea:

‘Sustraiak han dituenak’

Nekez uzten du bere sorterrria
sustraiak han dituenak

...

Mikel Laboaren doinueran.

Jexuxmai Lopetegi *Akelarre* taldean ezagun egin zitzaigunak kantatu ditu Sarrionandiak deserriari buruz idatzitako poemarik ezagunenetako batzuk *Izar Uxo* diskoan (2009):

‘Sorlekuaren kanta’

Sorlekura, iturrira

Laino gisa, soilik

Itzultzen dira urak.

Sorlekura, iturrira

Oroiminez, soilik

Itzultzen dira bideak.

Oi, ur eta lainoak

Bideak eta oroiminak!

Zer izanen naiz ni bihar,

Iturrira, sorlekura itzultzean!

Lainoa izanen naiz?

Oroimina izanen naiz?

‘Inongo lekua’

Geratu egiten gara ala joan.

Halaere, geratzen garenean ez gara
apur bat joaten?

Eta joaten garenean ez gara
geratu egiten?

Hemen, geratu eta joan egiten gara?

Ala honuntz gatoz oraindik?

Eta hara ailegatzean, hona itzultzeko
ala harantzago abiatzeko da?

Handik etortzean, han geratu ginen?

Hemen geratzean

hemen geratzen gara? Hemendik joaterakoan
hara itzuliko gara?

Joatea itzultzea da beti? Egundo egon

gabeko lekura itzuliko gara?

Eta itzultzea harantzago joatea
Besterik ez bada?
Geratzen denak betirako geratzen dela
pentsa dezake?
Ezinbestekoa da abiatzea eta
ailegatu ezinean geratzea?
Abiatzen dena ez da egundo inon
geratuko?
Ala itzuliko da? Baina, itzultzen dena
abiatu zeneko lekura itzultzen da ala?

2013 honetan *Ken 7* taldeko kide Eñaut Elorrietak *Deserriko kantak* bilduma kaleratu du eta Sarrionandia bera, Bernardo Atxaga, Joan Oliver, Mario Benedetti edota Har-kaitz Canok idatzitakoak hautatu ditu ahaiertzeko.

Ettxeparek *Sautrela* edota *Kontrapas* sortu zituenetik (*Mosen Bernat Ettxepare 1545. Oskorri, 1977*) dugu euskaldunok gure hizkuntzaren biziraupenari buruzko ardua. Aldarte, ikuspuntu, tonu, helburu, jarrera, itxaropen, etsipen, neke aunitzez, kantatzen diogu, oroz gain, maiteminez. Euskaraz kantatzen duen musikarik sor zitzakeen berak musikatzeko berbak, ez zaio arrotza, ez du dokumentazio lanik eskatzen, ez du inoren aholkurik behar komunikatzeko darabilen hizkuntzaren egoerari buruzko iritzi zein sentimendua adierazteko. Edo bai? Musikagile izanagatik, letraegile izan behar du? Musika sortzeak berak dakarren lan eskergak eragindako nekea? Alferkeria da edo ezintasuna? Zertarako idatziko dut nik ezer beste batek hobeto dagiena?

**‘Guk euskaraz, zuk zergatik ez’
(Gabriel Aresti-Urko)**

Guk euskaraz
Zuk, zergatik ez?

Euskara putzu sakon
eta ilun bat zen,
eta zuek denok
ur gazi bat
atera zenuzten
handik nekez

...

‘Gora ta gora beti’ (Gabriel Aresti-Oskorri)

Gora ta gora beti,
haik gora Lapurdi!
Euskerak bizi gaitu
eta bizi bedi.

...

**‘San Simon eta San Juda’ (Gabriel Aresti-Herrikoi
bihurtua / Txatanuga Futz Band)**

(...)

Ez dugu zaldirik, ez gera zaldunak
ez dugu abererik, ez gera aberatsak
euskerak guk dugu, gu gara euskaldunak (bis)

‘Bagare’ (Bittor Kapanaga-Gontzal Mendibil)

Araban bagare
Gipuzkun bagera
Xiberun bagire
Ta Bizkaian bagara
Baita ere, Lapurdi ta Nafarran.

Guziok gara eskualdun
guziok anaiak gara
Nahiz eta hitz ezberdinez
Bat bera dugu hizkera.

...

‘Euskal Herrian Euskaraz’ (Xabier Amuriza-Oskorri)

Euskal Herrian euskaraz
nahi dugu hitz eta jolas
lan eta bizi euskaraz eta
hortara goaz,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.
Zabal bideak eta aireak
gure hizkuntzak har dezan arnas,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz

...

Beste horrenbeste azpimarra genezake Euskal Herriari, herriari, nazioari, aberriari, atergabe zapaltzen diharduten gure identitateari kantatu diogunean. Zein askatik elikatu gara euskaldunok gure izateari buruz gogoetatzeko, inorekin eztabaidatzeko, etsaiak nor diren erabakitzeko, askata-

sun a edota demokrazia zer demontre ote diren argitzeko, euskaradunon herria nondik nora zabaltzen den identifikatzeko, aberria babestea zein garrantzitsua den sinesteko ez bada gure kantugintzatik? Katalunia zein Eskoziak abiatutako erabakitzeko eskubidearen aldeko mugimenduan herritarren gehiengoaren beharra ezinbestekotzat azpimarratzen delarik, gaurdaino orbandu ezinik dugun zauriei kantatzen diegu euskaldunok.

‘Bultzi-leiotik’ (Xabier Lizardi-Benito Lertxundi)

Oi, lur, oi lur!

Oi, ene lur nerea!...

Oi, goiz eme,
parre gozoz ernea!...

Arto musker,
mendi, baserri zârrak;
ale gorritz
abailduta sagarrak:

oro laño
mê batek estalia,
urrez oro
eguzkiak yantzia...

Nekazari,
gizandi bat iduri
soroan zut:
beyondeizula zuri!...

Zure bazter,
gurazko aberria,
doa zoro
(ta bertan ni) bultzia...
Oi, ene lur,
baninduzu zerea,
zu landu, ta
zure sariz aseá!...

Bañan... ezin:
bêko bear goriak
narama...Agur
soro, sagar, mendiak!

‘Agur, Euzkadi’
(Estepan Urkiaga Lauaxeta-Antton Valverde)

Agur, Euzkadi, Jaunak naroa
Aberri eder argira.
Neure negarrak jarion neuzan
zeure mendiai begira.

Seme bat zeukan, baña etsayak
kendu eutsoen biotza;
soin ederrera ixuri yakon
mayetz bateko goiz otza.

Gurutz Deunari mosu egiñaz
aldegin eutson mundutik,
Kistoren gentza abo ganean
loratu yakon gastetik.

Jaunaren maitez, aberri maitez,
ez eban euki bildurrik,
eta zeuretzat zorion utsa
opaldu eutson gogotik.

Euzkadi ona, zagoz betiko
Kistoren fede betean;
olan zoruna billauko dozu
emen ezpada zeruan.

Eriotz deuna aurrean daukot,
ziñistu bada, euzkoa:
Euzkadi azke izan daitean
zaindu Josu'ren legea.

Eder yatazan euzko bazterrak,
eder itxaso zabala;
baña oraintxe ederrago yat
eriotz onen itzala!

Gaztea nozu bizitz onetan
t'ez yatan palta gauzarik.
Jauna!, gogorra aldi onetan
iges eitea lurretik.

Ezpedi egin neure oldea,
zeure naia bai, ostera.
Gogoia boa zeru argira,
gorputza lur illunera.

‘Ama Euskal Herria’ (Xalbador-Anje Duhalde)

Delikatua baitut egungo sujeta,
hasi aintzin egin dat zonbait gogoeta,
gure arteko asko ele entzun eta,
euskaldun agertzea ez baita josteta.

Ama Euskal-Herriaz naiz naigabetua,
uzterat doalakotz betikotz mundua,
bere seme alabez abandonatua;
nork barka dezaguke gure bekatua?

Badakir askoz ere nukela hobia
nehorri ez agertu ene dolarea;
odolaren mintzoa eduki gordea
nahiko nuke, bainan ezin dat ordea.
Ama Euskal-Herriaz...

(...)

Hil hobi huntan noizbat norbait badabila,
zure izaitearen herrestoen bila,
lurpetik entzunen du deiadar bipila:
hernen dago ama bat bere hurrek hila!
Ama Euskal-Herriaz...

‘Ama Euskadi’

(Etxahun Iruri-Maddi Oihenart / Ruper Ordorika)

(...)

Ama egün xiberotar bat, düzü zure zerbütuari
nahiz zuri bestimenta bat, paregabeko berezi.
Artzain batek eskentzen deizü, Orhi bortüan da bizi,
egün oroz gogoan zütü, oi gaixo ama Euskadi.

‘Batasuna’ (Telesforo Monzon-Pantxoia eta Peio)

Aupa gizona, jaiki mutil!
Atzar emazte ta neskatil !
Borrokarako dei egiñaz
Irrintzi bat dabil!

Euskal Herria diagu zai,
Presoak eta hilak ere bai!
Abertzale izan ezkerro gaur,
Gauden denok anai!

...

‘Nire euskaltasuna’ (Koldo Izagirre-Imanol)

Nire euskaltasuna baso bat da
eta ez du zuhaitz genealogikorik

nire euskaltasuna dorre bat da
eta ez du Alostorrerik

nire euskaltasuna bide bat da
eta ez du zaldizkorik

nire euskaltasuna lore bat da
eta ez du aldarerik

nire euskaltasuna itsaso bat da
eta ez du almiranterik

nire euskaltasuna liburu bat da
eta ez du sotanarik

nire euskaltasuna mundu bat da
eta ez du Amerikarik

nire euskaltasuna bertso bat da
eta ez du txapelik

nire euskaltasuna bekatu bat da
eta ez du mea-culparik.

**‘Aritmetika arazoak’
(Koldo Izagirre-Tapia eta Leturia)**

Zenbat lurralde ditu
gaur Euskal Herriak?
Euskadik adina bai
balitu erdiak!

zenbat euskaldun ditu
gaur Euskal Herriak?
ez lirateke gutxi
balitu erdiak!

zenbat aditu ditu
gaur Euskal Herriak?
ez ote luke hobe
balitu erdiak?

zenbat aurkari ditu
gaur Euskal Herriak?
herritarreko bosna
balitu erdiak!

zenbat maitale ditu
gaur Euskal Herriak?
erruz maitatu izan
balitu erdiak!

zenbat bekatu ditu
gaur Euskal Herriak?
ez luke barkamenik
balitu erdiak!

zenbat gobernu ditu
gaur Euskal Herriak?
behar baino gehiago
balitu erdiak!

zenbat arazo ditu
gaur Euskal Herriak?
asko samar oraindik
balitu erdiak!

zenbat galdera ditu
gaur Euskal Herriak?
nahiago nuke bihar
balitu erdiak!

zenbat erantzun ditu
gaur Euskal Herriak?
ai hobeki pentsatu
balitu erdiak!

‘Nire aberriaz’ (Mikel Ibarguren-Bide Ertzean)

Aberria norberak bere baitan
daraman lur zatia baino ez da
baina nire aberria
irriño baten barruan kabitzen da
oroitzapenez osaturiko aberria da nirea
zurea eta nirea
izenik gabeko adio isil bat askotan
beti arte, ez dakit noiz arte bat
baina arte bat
horrelakoxea da nire gurazko aberria
hutsa eta jendetsua
boz minartua
hurbil eta urruna
bestelakotua
nimiñoa
poema baten barruan kabitzen den
aberria da nirea

Poeta eta musikaria euren garaiko kronistak dira, gezurrik kontatu ezinak edo egia ostendu beharrak erasaten ez dituen historialarien arau deontologiko estuetatik salbu, garaiko herrikideen bizipenei kantatzeko mandatua sentitzen dutenak, herriaren ahotsetako bat, isilarazten dituztenen bozgorailua, zapalduen protesta, desagerrarazi asmo duten hizkuntza menostuaren aldarria... edo egoak ebaki

gabeko txoriak dira? edo euren zilborrari beha ari dira?
1960tik gaur egunera zenbateraino aldatu dira kantagaiak?
Idazlearen eta musikariaren arteko lankidetzak kantagaiekin
batera aldatu da? Koblakariak behar ditugu? Zertarako?

Mikel Laboak 1964an plazaratu zuen lau kantuko *Azken*
deritzon EPan Jean Barbierren kantu bat eta hiru herrikoi
entzun daitezke. Urtsuako *kanta* haren bigarrean, be-
deren, 1980ko hamarkada baino lehen jaiotako euskaldun
guztion imaginario kolektiboan sakon iltzatutako bi kantu
plazaratu zituen: *Apur dezagun katea* eta *Egun da Santi Ma-*
miña, biak ala biak, Gabriel Aresti Seguro-larenak.

Itsas aldean izarra,
hari begira lizarra;
euskara salbo ikusi arte
ez dut kenduko bizarra

(...)

Poeta naizen ezkerro,
eztut zerurik espero
bederatzi koplak ditut
lau zuhur eta bost ero

Nemesio Etxanizek eskatutako euskal kantugintza be-
rri baten beharrari erantzun zion Mixel Labegeriek era-
gin itzela izan zuen *Ez dok Amairu* sortzaile taldean. Euskal
kantagintza berria herri kantagintzaren sustraiak erauzi
gabe hedatu zen euskaldunon artean, milaka lagun elkar-
tzen zituzten ekitaldi masiboetan gure identitate naziona-

lari kantatzen genion, idazleek eta musikariek lau eskutara ondutako ereserkiak sutzuki errepikatuz.

Alderdietan zein herri mugimenduetan antolatutako abertzaletasunaren diskurtsoa eraikitzeke arduratzen izan duten ideologoak, Bartolo Maritxuren iturrira beste joan dira asegarri bila gure kantutegira, idazleen testuekin ondutako kantuetara, euskal poesiaren uzta amaibakora. Adibideak, zientoka.

2012ko Gudari Eguna ospatzeko ekitaldian *Dana emon bihar jako matte dan askatasunari* pankarta eseki dute udaltxeko balkoian ezkertiar eta ateoek. Eskuindar elizkoi fustilatutako Lauaxetaren *Mendigoxaliarena* poemako oihua da, Antton Valverdek 1978an Herri Gogoaz zigitupean kaleratutako *Lauaxeta* diskoan kantatu zuena, Eñaut Elorrietak eta Rafa Ruedak 2005ean egungo rock erara moldatua *Ehungarrenean hamaika* Lauaxetaren poemekin askoren artean sortutako kantutegian.

Hauteskundeetako mitinetan, gogoangarritzat proposatzen diren egunetan, omenaldietan, negarra zein poezia xerkatzen diren jende elkartzetan, idazle eta musikarion arteko elkarlanetik euskaldunon imaginario kolektiboan iltzatuta ditugun kantuak erabili ohi dira. *Izarren hautsa*, Xabier Lete. Beronen *Martxa baten lehen notak* kantua erabilia zuen Maialen Lujanbiok 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusian. Lete nor ze ez zekitenentzako amua. Ez da harritzekoa, joan diren 50 urteotan jendaurrean aritu izan diren politikarietatik oso gutxiak lortu dute bertaratutakoaren begiak lanbrotzea, bihotzak uzurtzea, azalak laztea. Poetez baliatzen dira, kantariak engaiarazten dituzte (gero, idazle zein musikarion eguneroko gutxieneko

beharrizanak asetzeko oso gutxi egiten badute ere). Ez da harritzekoa, koblakariak herriari ikasitakoa kantatzen baitu, politikariak herriari sinestarazi gura dionerako erabiltzen baititu berbak.

Mixel Ducauk eta Anje Duhaldek osatu zuten Errobi taldea, musikari dagokionez, bederen. Hitzak, Daniel Landartek idatzi baitzizkien 1975ean eta 1977an plazaratu zituzten bi diskoetan. Ez dok Amairukoek, batez ere Benito Lertxundiren ahotik kantatu zuten antigualeko *Zuberoa* eta bukolismotik erabat ezberdin, hegoaldeko euskaldunen gehiengoarentzat erabat arrotzak ziren Ipar Euskal Herriko egoera sozioekonomiko, kultural eta linguistikoaren berri oso era gordinean kantatu zituzten, rocka hegoalderatzeaz gain. Idazlearen eta kantariaren eginbeharrari buruzko proposamen zehatza zekarten:

‘Gure lekukotasuna’ (Daniel Landart-Errobi)

Zuen aurrean, jaun-andereak,
ibiltzen gara askotan...
bozkarioa ezarri nahiz
denen gogo-bihotzetan!
Baina giroa, ez dago naski,
alaitzeko denboretan ...
Oraindik ere gure herria
ari baita negarretan! (bis)

Ez dugu segur gauza haundirik
Herriari eskaintzeko...
Bakar-bakarrik zenbait olerki
hemen zuei kantatzeko.
Guk ere zinez, gure Herria

asko maite dugulako.
Eta kantuz, gure moldean,
nolazbait zerbitzatzeko... (bis)

Badakigu bai, kantuz beste,
nahi duela Herriak...
Bainan ez dira denontzat berdin
iraultzaren iturriak
Bakoitzak beraz, bere sailean,
ezar ditzala harriak...
Elkarren lanak, ongi uztartuz,
altxatzen dira etxeak !

Etxe batean, nork ez du maite
beti kantuz ari dena ?
Baina kantua, ez da ez aski,
egin behar ere lana !
Gaurko kantu hau izan dadila
gure lekukotasuna...
Burruka gaiten irabazteko
Euskadin askatasuna! (bis)

Sortzailearen engaiamenduaz kantatzen dute Koldo Iza-
girrek eta Joseba Tapiak *Real Politic* diskoan:

‘Etorbide profesionala’

Zenbat trikiti zenbat fandango
zenbat pasodoble jo dudan nik
ezker eta eskuin esku eta zango!
zer ez dut nik jo?
txaloak gaiztotzen du harroa

baina sekula ez dut jo
ez dut jo sekula jotakoa

mila mandio mila teilape
mila taberna alaitu ditut
bete eta hutsik hutsik egin gabe!
non ez dut nik jo?
zoko guztietan jo dizut nik
baina sekula ez dut jo
ez dut jo sekula pulpitutik

jotzen dut uda jotzen dut negu
egunero naiz jo beharrean
soinuak estu ninduen heldu
noiz ez dut nik jo?
giro sortzen zenbat ibilera
baina sekula ez dut jo
ez dut jo sekula epelera

zenbat trikiti zenbat fandango
zenbat folk eder joko dudan nik
zenbat egia eta gezur esango!
nola ez dut joko?
joko dut zoli joko dut grabe
baina inoiz ez dut joko
ez dut joko inoiz jotze alde

ezintasunak joko nau baina
orduan ere joko dut bero
saiatuko naiz tentatuz gero

nola ez dut joko?
dardara batean naiz jarriko
baina inoiz ez dut joko
ez dut joko inoiz belauniko

joko dut karu joko dut merke
eta ez daukanak behar banindu
joko dut pozik, pozik musu eske
nola ez dut joko?
joko dut hauspoak eman arte
baina inoiz ez dut joko
ez dut joko inoiz maite ez banaute

Benito Lertxundik kezka berari erantzuteko Jose Men-
diageren berbak hartu zituen beretzat:

‘Kantuz’

Kantuz sortu naiz, eta kantuz nahi bizi,
Kantuz igortzen ditut nik penak ihesi,
Kantuz izan dudanian zerbait irabazi,
Kantuz gostura ditut guziak iretsi;
Kantuz, ni bezalakoak, hiltzia du merezi.

Kantuz pasatu ditut gau eta egunak,
Kantuz izan dirade ardura ene lanak;
Kantuz biltzen nituen aldeko lagunak;
Kantuz eman daitate obra gabe famak,
Kantuz hartuko ahal nau, gure Jainko Jaunak!

Kantuz eman izan tut zenbaiten berriak,
Kantuz gustatu izan zait erraitia egiak.
Kantuz eman baditut hainitzi afruntuia,
Kantuz barka ditzaten ene bekatuak,
Kantuz egiten ditut nik, penitentziak.

Kantuz eginez geroz mundura sortzia,
Kantuz ein beharko dut, ene ustez, hiltzia;
Kantuz emaiten badaut Jainkoak grazia,
Kantuz idekiko daut San-Pedro-k atia,
Kantuz egin dezadan zeruan sartzia.

Kantuz ehortz nezaten, hiltzen naizenian,
Kantuz ene lagunek, harturik airian,
Kantuz ariko dira, ni lurrian sartzian.
Kantu frango utziko diotet munduian
Kantu egin dezaten, nitaz oroitzian.

Daniel Landartek Mendiageren bertsoak gogoan idatzi ote zituen Errobik ezagun egingo zituenak? Ipar Euskal Herriaren kolonilazio basatiaz (*Kanpo, Perttoli, Nora goaz*) edota gatazka politikoaz ez eze (*Euskadi, Hi, Bakea, Ez deat erranen*), Daniel Landarten lumatik, gaur-gaurkoz maiztu barik dirauten gaiei kantatu zieten Errobikoek: *Lantegiko 10 manamenduak, Nagusiaren nigarrak, Emazte, Xileko langileria*.

Beste horrenbesteko elkarlanetik sortu ziren Pantxoa eta Peioren kantuak, batez ere Manex Pagola eta Telesforo Monzonen hitzekin ahaireretutakoak: *Itziarren semea, Lepoan hartu ta segi aurrera, Aita kartzelan duzu, Ikastoletako ereser-*

kia, Kanta aberria, Urtxintxak, Azken dantza hau, Bai euskarari, Batasuna...

Donostialdean, Imanol Lartabalek, Mikel Azurmendi, Mikel Arregi, Bertolt Brecht, Xabier Lete, Jon Mirande, Rafa Eiguren, Juan Mari Lekuona, Gabriel Aresti, Xabier Amuriza edota Koldo Izagirrearen hitzak kantaturik, ordura arte ez bezalako lirikotasuna ekarri zien borrokarako kantu latzei: *Hil zinetenei, Zure askatasunagatik, Poeta kaxkarra, Nire euskaltasuna, Mendian gora...*

Hiritzat har genezakeen gure hiriburu bakarra den Bilboko erdal herrian, Natxo de Felipe eta Gabriel Aresti elkarlanean hasita zeuden. Natxok Gabrielelek idatzitako zenbait testu kantatu zizkion gitarra lagun. Hura laketu eta testu gehiago helarazi zizkion. *Egia da-Anaitasuna* kantu biko diskoaren ostean Gabriel Arestiren oroimenez argitaratu zuten Oskorrikoek oso-osorik Arestiren idatziekin sortutako bilduma. Kantu liburuetan errepikatzen diren *Guretzat, Gora ta gora beti, Kontrapas, Bizkaiko aberatsak...*

Erdal hiri berberak liluraturik argitaratu zuen Bernardo Atxagak *Etiopia* 1978an. Bi urte beranduago liburu horretakoak moldatu zituen Ruper Ordorika pottbandakideak *Hautsi da anphora* diskoarako. Lotsa barik aitortuko dugu Ordorikaren diskoari esker ulertu genuela *Etiopia*, ustez. *Herdoilarenak* erraztu zigun 70. hamarkadaren amaierako Bilbori soinu-banda eransten:

'Herdoilarena'

(Bernardo Atxaga-Ruper Ordorika)

Herdoilaren tristeziarekin batera
ziutate honen soinekoa udazkenetan lanbroa da
eta bere sabaia laino baso bat
non bizi del ilargiaren badaezpadako agonia
eta kalatxorien argi urdinskak
murrail erraldoiaren begi gauero
zubi zaharrenetatik
hibaiari so berripaper saltzailea
hitz ezezagunen hiztegi bati bezala
bus txofer batzu boxeolari hilaz mintzatzen
apatridak bailiran trenak
memoria karrilen fatalitatean galduz
denboraren oihal xinglea arratsezkoa soilik
arrabita baldarren nostalgia kantoietan
eta haruntzago, mozkorrak
kalegarbitzailereren beilegi bizia
beste zubi bat, prostitutak.

Literaturari beste funtzio bat dagokiola aldarrikatu zuten Pott Bandakoek, beste kantagai batzuk azalerazi zituzten, esateko beste modu bat, surrealistagoa, absurdoagoa, hiritarragoa.

'Berandu dabilta'

(Bernardo Atxaga-Ruper Ordorika)

Eguneroko bizitza ikatza bezelako
labexomorroak ixurtzen hasi zenean etengabe,
Otis Redding badiako kaian eseri zen
aideplano eroriei kantatzeko blues band.

Sagarraren loreek su hartu zuten eta
niri odola hasi zitzaidan sudurretatik
baldosa zuriko komuna publikotan
pornografia irakurtzen ari nintzenean love,
eta alkimistek txosten bat eman zuten
argitara plusvaliaren alde azalduz erabat,
Errestaurantetik bi homosexual bota
zituzten arrazoi komertzialak zirela merio.
Bakardadearen milaka kopia inprimatu
ziren neguaren ateetan geundelako,
ene osaba batek postale bat izkribatu
zidan Stop ene urtebetetzea zelako Stop iloba,
eta bide batez bere seguruetea kontseilatu
nahi zadalako inoiz ez da jakiten noiz,
ene maitaleak telefonoa jo zidan kobre
zaporeko maitasunez gauaren erdian.
Eguneroko bizitza ikatza bezelako
labexomorroak ixurtzen hasi zenean etengabe.
Gero ernari gelditu zen ibaia zerutik
atergabe jautsitako espermaz, alkandora
arrosak loredunak xuriak gorribeltzak
multikoloreak herrestan eramanez,
eta aste berean ni puta bat naiz oihuztatu
zuen ezkontza despedidan Champagne,
Olivetti batetan bere lehen gutun erromantikoa
osatu zuen sekretaria lotsatiak;
eskaleek halere trapuzko etxeak jaso
zituzten zubipean mitxeletak babesteko,
kattagorriek supermerkatuari eraso zioten
altxa besoak non da intxaur kaxafuerte.

Negua heldu zen azkenez eta
antzerrek V bat egin zuten zeruan,
dispensariotan antitristezi pildorak
banatu zituzten ugari
Ejiptoko zazpi izurriteren edizio
ugaldu eta korrejitua usmatuz;
zoriona gramoka saltzeari ekin
zioten trono aingeru eta kerubinek;
beturte kardinek igotze desnatura
eman zuten Erromako boltsan,
mila liburu erregalatu zituzten bankuek
Ora eta bereziki Labora lemapean;
baina alferrik zen berandu dabilta
ez dute ezer lortuko honez gero,
palazioak lurrera doaz gartzeletako
ormak pitzatu egin dira,
eta gu libro gabiltza kaleetan tirantezko
galtza laranjaz jantzirik, libro libro.

Euskararen egoera prekarioa zein identitate nazionalari buruzko kantuak ez dira desagertuko baina beste kantagai batzuk ere agertuko dira eta, batez ere, estetika berriak, ordura artekoetatik forma ezberdinak.

Musika kritikari askok XX. mendeko talderik garrantzitsuenatzat duten Itoizekoek Joseba Alkalderen idatziekin osatu zuen *Ezeiel* disko kontzeptuala 1980an. Osteko diskoetan ere joko dute letrajoskile baten baino gehiagoren aldaba.

‘Ezekielen prophezia’

(Joseba Alkalde-Itoiz / Ruper Ordorika)

Eremuko dunen atzetik dabil
zulo urdin guztiak miatu ezinik
eta euri zitalari esker bizi da
ikusi zituen gurpil sutsuak
arranotu zaizkio, amonatu
eta bazter batean aurkitzen da

eremuko dunen atzetik dabil
zulo urdin guztiak miatu ezinik
eta euri zitalari esker bizi da
ikusi zituen gurpil sutsuak
arranotu zaizkio, amonatu
eta bazter batean aurkitzen da

desafinatzeke nahasirik gabe
jadanik agure itxura eutsirik
gauaren pareta “sprai”atu duzu

hamazazpi urteak
hamazazpi zuri dira ezekiel
mingotzaren merkromina ezekiel
eter labur bat zara
hari single bat zara
betiko

eremuko dunen atzetik dabil
zulo urdin guztiak miatu ezinik
eta euri zitalari esker bizi da

Josu Zabalak azpimarratu zigun 80ko hamarkadan Gasteiz erabat erdaldunean euskaraz kantatzea hautu politikoa izan zela. Gasteiz erdalduneko gasteiztar erabat erdaldunek logikotzat ez eze, ezinbestekotzat ei zuten orduan, han, euskaraz kantatzea. Ez euskaldunena, erdaldunen oniritzia izan zen Hertzainak taldearen etorkizuna bermatu zuena. Sakon aztertzekoa, bide batez, euskalduntasunaren periferiako musika talde batek zelan egin zuen bat periferiako idazle batekin. Kantuak aspaldi lotu zituen Baiona eta Gasteiz.

‘Irauten’ (Itxaro Borda-Hertzainak)

Hiri ezezaguneko karrketan zabilta
adiskidantza itsuen aintzira lehortuak
direla dagoeneko erraiten.

Hiri ezezagunetan ez dela beti giltza
harrapatzen gauetako hasperen agortuak
berriz berma arazteko erraiten.

Euriaren kolpeak

hegaztegietan

arrotzaren moldeak

zure begietan

atzoko hiri urdinaz egiten duzu amets
nolatan ziren higatu lantzerraren mendeak
basoko ardo mikatzei eskatzen.

Solasen hari meharrak arroztean jendeak
zein leizetan galduko zaren amodioz amets
duzu oroitzapenari eskatzen.

Euriaren kolpeak

hegaztegietan

arrotzaren moldeak

zure begietan
ihardokitzen ikasten dukezu azkenean
hiri ezezaguneko karrketan ibiltzen
hitzak ahantzi artean irauten.
Goizak direla etortzen usterik ez denean
mintzoaren hotsa doa argizagitan hiltzen
desertuak kantatzeko irauten.
Euriaren kolpeak
arrotzaren moldeak
zure begietan.

Iñigo Aranbarrik azken lirikotzat deskribatu zuen Jose Luis Otamendi eta Bide Ertzeanen arteko elkarlanak hamabost urte bete ditu. 1999an *Zure minari* deritzon diskoa, Otamendik *Zainetan murrailak* zein *Poza eta gero* bildumetan plazaratutako poemekin tajutu zuten. Euskarazko poparen aitzindariak ei direnak eta azken lirikoak.

‘Aurrez amestu gabetan’
(Jose Luis Otamendi-Bide Ertzean)

Aurrez amestu gabetan
ezin ditut ukitu zure ezpainak
libertatea
ezin dut oratu zure gerria
etxalde zuriak
amets egitean
preso hartzen ditut
mamu guztiak
gero burmuinean
hiltegi usaina daukat

Bi urte lehenago kaleratu zuen *Lorelei* taldeak izen bereko proposamena, Asier Serrano idazle-musikari eta Mikel Gorosabel *Norton* musikariaren arteko elkarlanetik sortu zen, EH Sukarra taldera ere hedatzen dena.

'Lorelei heriotzean' (Asier Serrano-Lorelei)

Gutun arrastoetan hintzenan Lorelei
Hitzen heriotzetan,
Kamiotako Suzzaneriak desbideratuena.
Lurperatuak egunaren atarian haurtzaroaren urratsak.
Etzegon, badakin, jadezko irudirik pagadian.
Etzegon bide xidorrik gogora.
Baina abiatuak gaitun, halere,
basurdeen larrazkenetan barrena;
aspaldiko gela hotzetara,
ustelberak direla jakinez...
arras ezagunak zamalzaintzat
gorniak erretakoen
zeinurik gabeko koaderno hauskorrak.

Antzeko harremana da Kirmen Uribe eta Piztiak taldearen lehenengo diskoetan. Idazlea taldeko kidea da, oholtzan ez bada ere. Idazle berberak eszenatokia eta diskoetako egiletzan berdintasuna lortu zuen Mikel Urdangarinek hasitako bidean. Are gehiago, proposamenari buruzko iruzkin, prentsa-ohar eta enparauetan, idazlea da nabarmentzen dena, musikaria gerizpetzeraino. Zuzenekoetarako amua idazlea da, ez musikariak, idazleari zuzentzen dizkiote mikrofonoak, idazlearena da diskoa.

‘Maiatza’ (Kirmen Uribe-Mikel Urdangarin)

Begira, sartu da maiatza,
Zabaldu du bere betazal urdina portuan.
Erdu, aspaldian ez dut zure berri izan,
Ikarati zabilta, ito ditugun katakumeak bezala.
Erdu eta egingo dugu berba betiko kontuez,
Atsegin izatearen balioaz,
Zalantzekin moldatu beharraz,
Barruan ditugun zuloak nola bete.
Erdu, sentitu goiza aurpegian,
Goibel gaudenean dena iruditzen zaigu ospel,
Adoretsu gaudenean, atzera, papurto egiten da mundua.
Denok gordetzen dugu betiko besteren alde ezkutu bat,
Dela sekretua, dela akatsa, dela keinua.
Erdu eta larrutuko ditugu irabazleak,
Zubitik jauzi egin geure buruaz barre.
Isilik begiratuko diegu portuko garabiei,
Elkarrekin isilik egotea baita
Adiskidetasunaren frogarik behinena.
Erdu nirekin, herriz aldatu nahi dut,
Nire gorputz hau albo batera utzi
Eta maskor batean zurekin sartu,
Gure txikitasunarekin, mangolinoak bezala.
Erdu, zure zain nago,
Duela urtebete etendako istorioa jarraituko dugu,
Ibai ondoko urki zuriek uztai bat gehiago ez balute bezala.

Arestian behin baizen gehiagotan gogoetatu dugu 80ko hamarkadaren ostean, idazle eta musikarien uztarriak aurrera darraiela, baina bestelako mami eta azalak xerkatze-ko eremuetan barna.

**‘Utzi genien zerua’
(Xabi Borda / Txuma Murugarren)**

Arrakalatuta itzuli digute
hegazkinek zerua
orain beti da arratsa
burdinazko egin dira hodeiak

hilurren den zeruak
ezin die izarrei eutsi
eta izerdi tantak
erortzen zaizkio

besoetan zeru bat
odolusten ari zaigu.

**‘Gereziondoak loretan’
(Leire Bilbao-Maddi Oihenart)**

Bere haur negarra isilarazteko
buelatu nahi duela herrira esan dit,
maiatzak ertza jo aurretik
gereziondoak loretan ikusteko.

Denborarekin kaleak eta iritziak
okertzen joan zaizkiola,
arnasa ez duela jada
utzi zuen lekuan aurkitzen.

Bakardadea neguko kaleetan
beroki lodi batekin ibiltzea dela,
badirela atea zabaltzean
inoiz ezer sartzen ez den etxeak,
kanpoko hotza ez bada.

Egunak hausten zaizkiola eskuetan,
hil berriak bezala prestatzen dela gauero,
lotsa ematen diola ohean biluzik hiltzeak.

Maiatzak ertza jo du,
eguzkiak berotu harriak sartu ditu poltsikoan.
Bere haur negarra isilarazteko
buelatu nahi duela herrira esan dit.

Musika estilo berriak jorratzen ditugun gure herrian idazle eta musikarien artean sortutako kantuen emaria oso oparoa da, bikoteka zerrenda genitzake idazle eta musikariak edo nabarmendu genezake musikari askok behin eta berriz oratzen dietela idazle berberen berbalekuei:

- Itoiz / Joseba Alkalde
- Hertzainak / Itxaro Borda, Jon Mirande
- Balerdi Balerdi / Pello Lizarralde
- Bide Ertzean / Jose Luis Otamendi, Iñigo Aranbarri
- Lorelei / Asier Serrano
- EH Sukarra / Asier Serrano
- Joseba Tapia / Koldo Izagirre
- Lisabo / Martxel Mariskal
- Mikel Urdangarin / Kirmen Uribe
- Pier Paul Berzaiz / Itxaro Borda
- Maddi Oihenart / Itxaro Borda
- Mugaldekoak / Edu Zelaieta
- Rafa Rueda / Omar Nabarro
- Jabier Muguruza / Bernardo Atxaga, Iñaki Irazu, Juan Kruz Igerabide, Jose Luis Padron...
- Gari / Jon Maia, Jon Benito...

- Joseba Irazoki / Mikel Taberna, Bitoriano Gandiaga
- Jexuxmai Lopetegi / Joseba Sarrionandia, Jon Benito
- *Hau da ene ondasun guzia* (Sarrionandiaren poemekin egindako kantuen bilduma).
- Keu Agirretxea / Mikel Etxaburu
- Mikel Markez / Pako Aristi
- Lou Topet / Jon Benito
- ...

Ehundaka diskotan aurkituko dugu idazle baten testua, ehundaka elkarrizketatan irakurriko diogu musikariari berak esan gura lukeen hori idatzi duelako ahairtu duela gehienetan laguna ere badenaren testua, ehundaka prentsa-oharretan letra larriz agertuko da idazlearen izena.

Kantu bat bere komunitatearen gogoan iltzatzen delarik, idazlea zein den ahazteko ohitura dugu. *Txoriak txori* ez zuen Mikel Laboak idatzi, Artzek baizik; *Bizkaia Maite* Jose Angel Irigarairena da Benito Lertxundirena bezain; *Aita semeak* herrikoia da bai, baina Mikel Zaratek izan zuen zeri-kusirik; *Euskal Herrian Euskaraz* herritar mugimendu baten izena izateaz gain, Xabier Amurizak errimatutako sorta da, Oskorrik iraungiezin bihurtutakoa. Zuzenean galdetuta, egoak besapean ostendurik, idazleak ohoretzat hartuko du berak idatzitako herrikoi bihurtu izana, zein beste helburu du ba, sortzaileak? Ostera, zergatik nabarmenduko dugu musikaria eta ahaztu idazlea?

Ez da beti gertatzen, etorkizunean gertatuko denik zalantzakoa da, musika entzuteko azturak aldatu diren heinean, lagunarteko kantarako gogoia apaldu egin baitzaigu, euskal kantagintzaren transmisioa ez baitugu inolaz ere

bermatuta. Baina nago XXI. mendearen lehen hamarkada honetan, disko baten hedapenerako, idazlearekiko elkarlana nabarmentzea prestigioaren seinale bihurtu dela. Idazlea desagertu egiten da kantua herrikoi bihurtzean eta agertu entzuna izatea nahi dugunean?

Koldo Izagirrek XX. mendeko *poesia kaierak* bilduman 40 poetaren lanak bildu zituen. Sarrera, poema hautatuak eta bibliografiaz gain, XX. mendean euskal idazle eta musikarien artean sortutako zenbat kantu ditugun eta zeri kantatu diogun jabetzeko, diskografia ere gehitu zien. Bildumatutako 40 poetetatik 35ek dakarte atxekirik diskografia atala. Ehunka kantu, sasoi, gai, forma, musika estilo, talde zein bakarlarik plazaratutakoak, gaurdaino gogoan iltzaturik gordetzen ditugunak zein oharkabean diskoetan apaldu zirenak. XX. mendeko euskal literatura ezagutzeko mugarria izateaz gain, Euskal Herrian XX. mendean gertatutakoa hobeto ulertzeko ezinbesteko lana Koldo Izagirrenera. XXI. mendeko lehen hamarkadako kantugintza aztertuz gero, idazleok eta musikariok buztarri berean diraugula ohartuko gara, www.badok.info euskal kantagintzaren ataria bisitatzea baino ez dago.

Ez dago Euskal Herriaren historia garaikidea kontatzerik euskal kantugintzaren eragina aintzat hartu barik. Ez dago euskal kantugintza azaltzerik, idazleen eta musikarien arteko harremanetik sortutako kantuen garrantzia kontuan izan gabe.

Anjel Lertxundi

Iratxe Etxebeste

“Ikusezintasunari aurea hartzeko, idazleak, ondo idazteaz gainera, bere lana ondo saltzen jakin behar du”

Ikusgarritasunaz eta ikusgarritasun ezaz jardun gara. Etxekoaz eta kanpokoaz. Eta beste hamaika kontuz. Gurean, “euskarazko produkzioari bizkar emanda” bizi da kultura munduko jende asko; kalte handia egin omen digu gaztelaniaz garatutako euskal paradisu galduaren mantrak. Eta kanpoan ikusgarri egin gaitzakeena “kultura” dela dio. Globalizazioa saihestezina dela eta forma hartzen ari dela onartuta, Lertxundiren aburuz “txikiak izateari atera behar dizkiogu etekinak, ez handiak imitatu nahiaren ezinari”, eta horretarako, identitate-marka bat behar da.

—Euskal literaturaren ikusezintasuna(k) esaten badizut, zer datorkizu gogora?

Ikusezintasun exogenoaz mintzatzen gara beti, kanpotik datorkigunaz. Baina bada ikusesintasun endogenorik ere, etxekook etxekoez dugun ikusezintasunaz ere jardun beharko genuke. Bi oroitzapen datozkit gogora: 1968ko Bertsolari Txapelketan Anoeta frontoian nengoen, Xalbadorri txistu egin ziotenean. Euskara arrotz bati, bertsojera arrotz bati egin zitzaion txistu. Ezagutzen ez zenari. Gureztat ez geneukanari. Gogoan dut, halaber, 1972 inguruan Euskal Poesiaren Eguna ospatu zenekoa eta antolatzaileek Gabriel Arestiri deitu ez ziotenekoa, espāñolista omen zelako. Euskal literaturaren aniztasuna —ekintza poetikoak

bere definizioan daraman aniztasuna— izan zen konbokatutako (nahi) ez zena, Euskal Poesiaren Egunean ikusi nahi ez zutena.

Ikusezintasun exogenoa deituko diogu etxeko askorentzat ere gure literatura ikusezina izateari? Esaten dizute: Nik ez nuen euskaraz ikasi, eta... Ni hobeto moldatzen naiz gaztelaniaz, eta... Ez naiz zurerik irakurtzeko gauza, eta...

Hor daukagu euskalkien auzia ere. Lauaxetaren Bide Barriak argitaratu zenean, Joseba Zubimendik idatzi zuen: “Guretzat akastxo bat du liburua: zail xamarra. Batez ere gipuzkoarrok ezin ulerturik aritu bear. Ez guzian. Zati osoak arkitu ditugu errezak; baña, alboan, zati ulerkaitzak ere bai”.

Egoera zenbat aldatu da ordutik? Hegoaldekoontzat ikusezintasuna da nagusi iparraldearekin (ez) dugun harreman kulturean ere. Hegoaldeko zenbatek ezagutzen du, idazleengandik hasita, Maiatz egiten ari den lana, Maiatzen produkzioa? Beste adibide bat da. Zerrenda asko luza daiteke.

—Norentzat da ikusezina gure literatura?

Praktikan, eta salbuespenak salbuespen, ikusezina da gure politikarientzat, gure establishment sozial, enpresarial eta ekonomikoarentzat, ikusezina da baita unibertsitateko katedradun guztiz gehienentzat ere. Oraintsu pare bat urte EHUko —beno, UPVko, bi unibertsitate balira bezala funtzionatzen dutela iruditzen baitzait— bi katedradunekin eztabaidatu behar izan nuen, konbentzitutako zeudelako zazpi lurraldeen kontua Sabino Aranarekin hasi zela (katedradunetako bat historialaria zen!). Ez zituzten Leizarraga eta Axular ezagutzen, ez zuten Euskal Herriari buruzko haien

formulazioen berririk, ez zekiten kanpokoentzat noiztik garen Pays Basque, Basque Country, I Paesi Baschi...

—Etxean, ikusezin. Eta kanpoan?

Ortega eta Gasset filosofoa eta haren lagun bat, biak jada adin ondratuko, solasean ari dira parke batean. Bi neska gazte eder pasatzen dira euren aurretik. Lagunak: “Ez digute begiratu”. Filosofoak: “Begiratuta ere, ez gaituzte ikusten”.

—Atxagak esana da 70. hamarkadan “enpastatu” egin zirela, ustekabean, munduan modernotzat jotzen zena eta euskal kultura. Zer deritzozu? Noiz uste duzu hasi zela euskal literatura ageriko bihurtzen euskararen mugetatik kanpo?

Betidanik egotzi izan diguten kostunbrismoa gaztelaniaz garatu da nagusiki, eta horrek gaur arte luzatu den klixee faltsua zabaldu zuen bazterretan. Kalte handia egin digu gaztelaniaz garatutako euskal paradisu galduaren mantrak. Baina 70. hamarkadaz galdetu didazu. Sasoi hartan, iniziatiba artistiko asko gauzatu zen Euskal Herrian, eta inaziatiba haiek, alde edo moldez, euskaraz zeuden eta handia izan zen euskara modernitatera zabaltzeko ahalegina. Arestiren poesiak bazter asko harrotu zuen, euskaraz lan egiten zuten antzerki talde amateurrek Dürrenmatt, Becquett edo Ionesco bezalako autoreen lanak ematen zituzten, Ez dok Amairu sortu zen, Oteizak artegintzari buruzko ikuspegi kanpo ederra irauli zuen euskal estetikari buruzko teoriekin, bertsolaritza prestigio soziala irabazten ari zen...

Baina, nire iritziz, modernitatearen eta euskal kulturaren arteko enpastatzea ez zen hain ustekabean gertatu. Kontziente ginen gure hitzak eta egintzak ez zirela batere

santuak elizak eta nazionalismo tradizionalenak betidanik euskara gordetzeko eraikia zeukaten katedral zahar baten antzeko mausoleoan. Zetorrenaren kontzienteak ziren eliza eta nazionalismo tradizionalena ere. Gogora ekarri, bestela, euskara batuaren auzian edo lehen ikastolekin gertatu ziren desadostasun eta borrokak. Ereduaren borroka zen, aurrekoarekin zerikusirik ez zeukan paradigma batena.

—Eta Gerra Zibilak eten zuen ahalegin hura, presente al duzue gaur egungo idazleek?

Ez naiz nor beste idazleen izenean hitz egiteko. Niri dago-kidanez, beti saiatu naiz erreferentzia historikoen eta tradizioaren garrantzia markatzen. Kontua argia baita: handik gatoz. Baina ahalegin hura presente izateko, ezagutu egin behar, eta ez dakit zenbat eta zenbati axola digun garai hark ekarri zigunaren ezagutza. Orain gutxi Eusko Pizkundearen urteurrenen bat izan da. Efemerideak ez du hauts askorik harrotu.

Garaiak ere, horixe egia, oso bestelakoak dira. Orduan, artegintza desberdinen arteko lotura bilatzen zen (literatura, musika, antzerkia, dantza, arte plastikoak...). Eusko Pizkundera literatura baino haratago zihoan, bretoiek Ar Seiz Breur mugimendu kulturalarekin egiten ari ziren antzera. Gaur, diziplina bakoitza bere aldetik dabil, eta baita diziplina jakin baten barruan gabiltzanok ere: gutariko bakoitza bere zoroak bizi du. Bere lanean euskararik behar ez duen musikari, artista plastiko eta halako asko euskarazko produkzioari bizkar emanda bizi da. Guk ezagutzen dugu haien lana. Haiak gurea, ez. Txillidari edo Oteizari buruzko testi doktorala gaztelaniaz egiten duen batek nekez aztertuko du euskarazko bibliografia, nekez sartuko

ditu bibliografian Juan San Martinek, Martin Ugaldek edo Xabier Letek idatzitakoak. Mikel Laboaren Komunikazio inkomunikazioak koska eta ertz asko ditu.

—Eta nola ikusten dituzu zuk euskararen muga barruak eurak, alegia, euskaldunek jarraitzen al zaitzete zuek, idazleak?

Euskaldunen masa sozial gero eta kualifikatibo batek, bai. Egia da industria kulturala deitzen zaion horri begiratzen bazaio, ez direla aspaldiko garai onenak. Tamalez, krisia lorpen gehiegi ari zaigu desmuntatzen eta hezurdurarik gabe uzten, baina, bestalde, inoiz ez bezalako maila ematen ari da gure literatura eta uste dut irakurlego fidela dugula; eta, fidelaz gainera, baita esker onekoa ere. Irakurleekin egin dugu bidea, irakurleek lagundu digute honaino. Gehiago aitortu beharko genuke irakurleekin dugun zorra.

Baina euskaldunek jarraitzen al gaituzten galdetu didazu, eta hori ez da ematen inongo literaturatan. Idazleen proiektio soziala, salbuespenak salbuespen, existitzen ez den zerbait da han eta hemen. Irakurtzea bakardadeko egintza da, isila, autonomia, eta irakurleek ikusi behar gaituzten tokian ikusten gaituzte: liburuetan.

—Zuk zeuk nola deskubritu zenituen euskal letrak? Ze erreferentziarekin hazi zinen?

Nire belaunaldiko guztiek bezala, nire irakurle-hastapenak erdaratan egin nituen, eta gaztelaniaz nahiko ondo idazten nuelarik erabaki nuen euskaraz izango nintzela idazle. Juan Mari Lekuona irakasle nuen, Salvatore Mitxelena familia-koa. Nerabezaroan, Lekuona gida izan nuen nire irakurketetan, ez euskarazkoetan bakarrik. Auspoako lehen aleak, eta Noni eta Mani bezalakoak izan ziren nire lehen irakur-

ketak, euskara suspertzeko. Laster etorri ziren Jon Etxai-deren antzerkiak, Arestiren Harri eta herri, Joxe Azurmen-deren Hitz berdeak eta Lekuonaren Mindura gaur izan ziren nire lehen irakurketak euskaraz. Oso zirkulu mugatua zen orduko hura, baina ondo komunikatzen zena, bizia. Aski zen Zeruko Argia edo Anaitasuna begiratze hutsa euskarak ematen zuen produkzioaren berri izateko.

Erreferentzi literario-literarioak, ordea, beste hizkuntzetan emanak nituen. Absurduaren antzerkia: hamazazpi urterekin ezagutu nituen, adibide bat da, Beckett, Ionesco, Dürrenmatt...

—Helburua izan behar al luke, zure iduriko, euskal letrak “ikusgarri” bihurtzea? Norentzat? Nola?

Egiten dugun lana, definizioz, publikoarentzat da. Ikusgarri izateko esperantzarekin idazten dugu. Baina Erromantizismotik hona asko aldatu dira gauzak literatura kontuetan ere, eta gaur mortal xaloa izatea da pentsatzea: “Ondo idazten badut, nire obrak gaina hartuko dio ikusezintasunari”. Ikusezintasunari aurrea hartzeko, idazleak, ondo idazteaz gainera, bere lana ondo saltzen jakin behar du. Alferrrik egingo dituzu munduko elektragailu onenak —tamalez, ikusten ari gara— gero ezagutarazten ez badituzu, konpetitzen ez baduzu, eta, azken finean, saltzen ez baduzu. Baina hori guztia egiteko egitura sendo bat baldin baduzu —argitaletxe, kritikari, agente, liburu-dendari, prentsa eta zabalkunde, publizitate...— beti izango duzu ikusgarriagoa izateko aukera. Oso kontu prosaikoak dira, eta hara non prosaikoa, nik praktikatzen dudana literatura-modua, deitzen zaion eguneroko babarrunak irabaztearekin zerikusia duen jardun ez batere jasoari.

Baina abiapuntua garenaren neurria da beti. Gu baino literatura handiagoek eta tradizio luzeagokoek ere gure literaturaren antzeko arazoak dituzte bai ikusgarritasunari dagokionez, baita beste hainbat auzi literariori dagokionez ere. Inoiz demostratu dut Italo Calvinok italiarentzat planteatzen dituen kezka berak direla gureak ere. Txikiak izateari atera behar dizkiogu etekinak, ez handiak imitatu nahiaren ezinari.

Euskal letrak ikusgarri bihurtzea onuragarri eta beharrezkoa dela, ez dut zalantzarik. Baina ikusgarritasuna nola lortzen den da auzia. Zein da gure eredua, inguruko erdarek ematen —eta eskatzen— dutenaren arabera izan behar du gure homologazioak? Film edo telesail baten irudiak ikusi bezain pronto, aise samar esan dezaket produktua estatubatuarra den edo italiarra, argentinarra edo Erdialdeko Europakoa. Gauza bera gertatzen da literaturan ere. Nongoa edo zein tradiziotakoa ote den, lasai hartzen diozu traza irakurtzen ari zarenari. Ikusgarritasun horrek, marka horrek, identifikazio horrek ematen dit niri zer pentsatua. Iragan mendeetako literatura nazionalak identifikagarriak ziren apenas zutelako elkarren arteko ezagutzarik. Identifikazioa, hau da, gertakari kultural baten identitate-markaren deskubrimendua. Gaur hori nola gauzatzen den —gauzatzen bada— oso gai interesgarria iruditzen zait.

—Fikzionatzen dugun Euskal Herria ez al da era berean ikusezina? Zure azken aldiko nobelagintzan badago asmo bat, hala dirudi behintzat, historia hurbila azaleratzekoa...

Ikusezina bainoago, nahi genukeena islatzen dugu, idealizazio bat, gure desioen proiektzioa, gure alde ilunak, edo agertzea komeni ez zaizkigunak —baina, aldi berean, gehien markatu gaituztenak— ezkutuan utziz. Baina literaturaren egitekoa bada inguratzen gaituenaren arrakala eta bazter ilunenetan fokua jartzea ere. Etxeko hautsak argitaratzera nindoala, argitaletxeen munduarekin lotura handia duen pertsona batek esan zidan ea nire nobela egokia ote zen zetozen garaietarako. Galdera, jakina, ez zen batere literarioa.

Nolanahi ere: kostunbrismoa kritikatzeko genuenean, literatura hark errealitatea idealizatzen zuelako zen. Inpresioa dut orduko eskema hark ez ote duen segitzen oso erro sendoak izaten gurean.

—Komunikabideek nola jokatzeko dute hau agertarazi edo beste hura ezkutatzeko?

Literatura letrez egiten da, eta, errealitatearen alde ezkutuetan argi egiten saiatzeaz gainera, orain ez dena baina geroxeago izan litekeena imajinatzen du. Komunikabideek ere letrak baliatzen dituzte egunerokotasunaren berri emateko, baina imajinazioaren bidetik ez, lekukotza zuzenetik baizik. Nolanahi ere, biek erabiltzen dituzte letrak, batek errealitatearen aurkia, besteak errealitatearen ifrentzua emateko. Harrigarria da, ordea, ikustea nola bere lana letren bidez betetzen duen kazetari eta hedabide askori zein gutxi axola dion letren munduak, letren funtzioak, letren duintasunak, letren etorkizuna prestatzeko indarrak. Eta letrei hain begirune gutxi dien halako batek zer irizpide eta zer ganora du hau agertarazi edo beste hura ezkutatzeko orduan?

—Zer paper dute idazle eta argialetxeek literaturaren zabalkundean? Nazioarterako ba ote dugu estrategia bat?

Nazioarterako estrategiarik baldin badago, nik ez dut ezagutzen. Daudenak, ahalegin batzuk daude, baina ez nioke estrategia deituko. Gorputz sozial ahula da gurea, eta komunikazio gutxi duena. Prentsaren bidez dugu bestearen berri, ez harreman pertsonalen bidetik. Eta idazleek zein argialetxeek beren interes propioak dituzte.

—Eta erakunde publikoek, nahikoa bultzatzen al dute euskal literatura hemen? Eta kanpoan?

Ez nintzateke zintzoa Etxepare Institutua bezalako ekimena aipatuko gabe utziko banu. Baina ez da nahikoa. Literatura da kanpoan ikusgarri egin gaitzakeena. Diruak, merkatuak, ekoizpenak, garrantzitsuak izanagatikan ere, ez dute usainik, non olent. Usain jakin bat, auskalo zerena eta nolakoa, baina usain identifikagarriren bat ez badarizu, asimilatuta zaude, beste Zara bat gehiago izango du munduko plazak, baina ez zara zu.

Baina Etxeparera itzuliz: Institutuak sinergiak bidera ditzake, euskal literaturaren pantaila izan. Baina pantailak irudiak behar ditu, eszenak, kontakizunak, errealitate eta proiektuak. Eta fotograma eta irudi horiek literaturarekin inplikaturata gaudenok emango ditugu, inork ematekotan.

—Erabaki al dezake herri batek “nola” ikusiko duten?

Alferrik. Jende askoren eta oso desberdinen urteetako lanak ematen du irudi jakin hori, baina lanean ari denak ez du bestearen berri, eta ez daki ezta ere bere lanak zer

emango duen. Artea planifikatzeko ahalegin guztiak porrot izaugarriak izan dira, historiak asko ditu adibideak.

—Topikoa eta sinplekeria maite al ditu globalizazioak? Edo beste zentzuan ere funtziona dezake?

Lehenik eta behin: globalizazioa saihestezina da. Gertatzen ari da, forma hartzen, egiten. Globalizazioa da. Globalizazioak munduan diren potentzialitate on guztiak ditu bere baitan, eta baita desastre guztien aukerak ere. Globalizazioaren altzoan gure —eta gu bezalakoen— espazioa bilatzea da apustua. Baina hori beti gertatu izan zaigu —ilustrazioan, industrializazioan, diktaduran...—, eta beti gertatuko zaigu. Historiaren ezaugarria da eta, gure txikian, historian segitzen dugu.

MOTZEAN

—Irakaslea, kazetaria ala idazlea: nor ikusten da gutxiago?

Garai batean ez bezala, irakaslea da prestigio sozial guztien duena. Kazetariaren egitekoa ez da, zirkulu askotan, behar bezala ulertzen. Idazleak badu sona, baina ez da haren lana ezagutzen, outsider sinpatiko baten traza du, nahiz haren lanak ezagutu ez.

—Konstantziaz eta begiradaz aparte, zer behar da egunero-egunero zutabe bat idazteko?

Martxelo Otamendirenaren neurri kosmikoko tema eta hark nigan jarritako sinesmena. Eta letra batzuk elkartzeko eguneroko diziplinara lotzeko masokismoa.

—EIE ez al da ikusezinago orain, sortu zenean baino?

Bai. Horrek ez du txarra denik esan nahi. Gaur, sortu zenean bezala, beharrezkoa den eta bere lana betetzen ari den da galdera. Beharrezkoa da, ez dut zalantzarik. Idazlearen ikusgarritasunak badu zerikusirik bere lanaren kitapen zuzen batekin, eta horretan uste dut Elkarateak gehiago egin beharko lukeela.

—Zer zerikusi dauka gaurko idazleak duela 50 urteko idazlearekin?

Egun orain dela berrogeita hamar urteko baldintzak baleude, euskal plazan ez genuke gaur ezagutzen dugun hainbat idazle ezagutuko. Baina, zerbait aurreratu dugu: gaurko idazleek ez dute orduko baldintzarik bizi. Ez gara orduko egoeraren inbidiaz biziko, ezta?

—3Lak zer da, Lauaxeta, Lizardi eta Lete ikusarazteko modu bat?

Gure hiru poeta handienengana hurbiltzeko modu bat. Gure lanak lagunduko ahal du haiena ikusgarriagoa egiten...

—“Asaba zaarren baratza”-rekin zer duzu zuk ikusteko?

Gure aita zenak “untzadun ormek” inguratutako baratza bat erosi zion Lizardiren familiari. Etxe bat eraiki zuen bertan, han bizi naiz. Eta gustatzen zait pentsatzea poetak “untzadun hormek” hesitako baratza hura zeukala buruan bere poema idazterakoan, han bizi naizela ni, han bizi gara-rela gu.

—Ikusezin bilakatu den libururik idatzi al duzu?

Bat baino gehiago. Adibidez, eta azken urteetako bat aipatzeko: Konpainia noblean.

—Eta irakurri?

Nor gogoratzen da gaur Jon Etxaideren Etxaide jauna edo Bitoriano Gandiagaren Denbora galdu alde obrekin, euskarak eman dituen literatura pertsonalaren lekuko puntakoenekin? Bietako prosagatik beste ezergatik ez balitz ere...

—Eta gehiegi ikusi denik ba al da?

Bai, jakina, bat baino gehiago, baina ez dizut izenik emango.

—Bukatzeko: Haur eta gazte literatura edo helduena, zein da ikusezinago? Zergatik?

Haur eta gazte literatura. Baina literatura guztietan gertatzen da, ez gurean bakarrik. Zergatik? Agian, adjektibo bat —haur, gazte...— daramaten literatura direlako. Obra batek adjektiboaren galga gaintitzen duenean —Atxagaren Behi baten memoriak datorkit gogora— ez da dilemarik sortzen.

